



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko maiatzaren 4a

43. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzkoa. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio-ko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (31. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzkoa.**

### *ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikulua ezarritakoa betez, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Lege proiektuko artikuluei aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agintzen da. Foru Lege proiektua 2012ko martxoaren 23ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### 1. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

#### **1. ZUZENKETA**

##### **IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikulua ordeztzeko zuzenketa. Honela gertatu da idatzita:

“1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da garantizatzea Nafarroako administrazio publiko guztiek eta beren arduradun, organo eta menpeko entitateek ahalik eta informazio gehiena emanen dietela herritarrei beren antolamenduari, eginkizunei eta jarduerari buruz; garantizatzea herritarrek eskubidea izan dutela administrazioek ematen duten informazioa eskuratzeko, zuzenean, azkar eta erraz; eta berdin beraiek administrazioei eskatutako informazioa ere; saihestea edozein itzalgune sor dadin administrazio publikoen jardunean, eta gardentasun erabatekoa ziurtatuko duten mekanismoak ezartzea.

Zioak: Foru legearen helburua izan behar duena askoz ere modu zehatzagoan idatzita egotea. Definizioetik beste foru lege batzuen helburua diren beste gai batzuk kentzea, horiek proiektutik kanpo egon beharko bailukete.

#### **2. ZUZENKETA**

##### **BILDU-NAFARROA**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1.1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela gertatuko litzateke testua:

“1. Administrazio Publikoaren eta herritarren arteko harreman mota berri bat arautzen du foru lege honek, gardentasunean eta sakontze demokratikoan oinarriturik dagoena eta “Gobernu Irekia” izeneko ezartzea helburu duena, honako hauek benetan bermatuz: (...)”

Zioak: Lege honen helburua izan behar da mekanismoetan eta praktika demokratikoan aurrera egitea, herritarrek parte hartzeko eta erabakitzeko gaitasun handiagoa eduki dezaten.

#### **3. ZUZENKETA**

##### **NAFARROA BAI**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikulua b) eta c) letrak aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“b) Herritarrek eta beren erakundeek duten eskubidea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren...

c) Herritarrek eta beren erakundeek duten eskubidea zuzenean edo zeharka interes publikoan eragiten duten...

Zioak: Eskubidea ez da soilik pertsonentzat arautu behar, pertsonak sortzen dituzten erakundeentzat ere arautu behar baita.

**4. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1.1. c) artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“c) Herritarrek duten eskubidea zuzenean edo zeharka interes publikoan eragiten duten aferetako erabakietan parte hartzeko beren borondatea bera beste mugarik gabe. Hartarako, elkarrizketa ireki, garden eta erregular bat izanen da.”

Zioak: Azpimarratzea demokrazian erakundeek uneoro bilatu behar dutela beren erabakiak herritarren borondatearekin eta sentipenekin bat etor daitezela.

**5. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluari d) letra berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“d) Informaziorako sarbidea eta lankidetzaren garantizatzea Nafarroako administrazio publiko guztien gardentasunean eta haien arteko informazio-trukeetan.

Zioak: Oraindik ere ez dugu lortu erakunde publikoen arteko informazio-trukeetarako jarrera egokirik. Ez du logikoa ematen legeak informazio hori gizarte osoari helarazi nahi izateak, administrazio publikoen artean halakorik ez dagoenean.

**6. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluari e) letra berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“e) Nafarroako herritarrei zuzenean kontsulta egiteko eskubidea, beren garrantziarengatik nahiz interes sozialarengatik kasuko Administrazioak nahiz foru lege honetan ezarritako prozeduraren bidetik proposa daitezkeen gaietan erabakiak hartu behar direnean.”

Zioak: Egiatzko borondate politiko bat baldin badago parte-hartze sozialari eta Gobernu Irekiari buruzko arauak emateko, ezin da herri kontsulta ahaztu, horixe baita herrialde askotan parte-hartze zuzenerako ezarri den prozedura normalizatua.

**2. ARTIKULUARI  
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK****7. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1.2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“2. “Gobernu Irekia” ezartzeko nahitaezko osagarri gisa, foru lege honek hainbat mekanismo arautzen ditu, Administrazio Publikoa egitura eta prozedura sinplifikatuz eta berritzailez horni dadin, hurbilago eta guztiz eskuragarria izan dadin lagundu beharreko herritarrentzat.”

Zioak: Eskuragarritasuna dela-eta, herritar guztiengana iritsiko diren formulak aurreikusi behar dira.

**8. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua ordezteko zuzenketa. Honela geratuko da idatzita:

“2. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Foru lege honen ondorioetarako, honako hau hartzen da Administrazio Publikotzat: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta harekin lotutako edo haren menpeko erakunde publikoak, bai eta Toki Administrazioa osatzen duten entitate publikoak ere, eta horiekin lotutako edo haren menpeko erakunde publikoak.

2. Sozietate publikoek, fundazio publikoek eta Nafarroako administrazio publikoekin eta beren erakunde publikoekin lotutako zuzenbide publikoko entitateek, eta haien agintaritzapean zerbitzuak ematen dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek, publikoek nahiz pribatuek, foru lege honen printzipio gidarietara egokituko dute beren jarduera, ezarriak dituzten arauarekin bat.

3. Informazioa eskuratzeari buruzko legedi espezifikoak baldin badago gai jakinen batean, foru lege hau legedi horren osagarri gisa aplikatuko da.

Zioak: Nafarroako administrazio publiko guztiak sartzea legearen aplikazio-eremuan, eta horien artean Toki Administrazioa, zeina proiektutik kanpo baitago. Ez dago arrazoirik gardentasun neurri berak ez aplikatzeko toki entitateei.

**9. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Aldaketak legearen gainerakoan izanen luke eragina. Hona testua:

“1. Foru lege honen ondorioetarako, honako hau hartzen da Administrazio Publikotzat: Nafarroako Foru Komunitateko administrazio guztiak eta horrekin lotutako edo horren menpeko erakunde publikoak.

Zioak: Argi uztea legeak Nafarroako administrazio publiko guztiak eta haien menpeko organoak hartzen dituela.

**10. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2.2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“2. Sozietate publikoek, fundazio publikoek eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioarekin eta haren erakunde publikoekin lotutako zuzenbide publikoko entitateek, eta haien agintaritzapean zerbitzuak ematen dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek, publikoek nahiz pribatuek, foru lege honen printzipio gidarrietara egokituko dute beren jarduera.

Zioak: Onartezina da enpresa publikoek herritarren informazio-eskubidea mugatzen duten arau batzuk edukitzea.

**3. ARTIKULUARI  
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

**11. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Arau honetan jasotako definizioek ez dute inolako ekarpenik egiten foru legearen aplikaziorako. Bestalde, horietako batzuk foru lege honetan arautu beharko ez lirakekeen gaiei buruzkoak dira. Beste zuzenketa batzuetan gauza bera proposatzen dugu.

**12. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“a) Herritarra: Administrazioarekin harremana duen edozein pertsona, izan bakarka eta bere ize-nean, izan legez eraturako erakundeetan nahiz xede jakin bat lortzeko aldi baterako sortutakoetan taldekaturik edo haien bidez ordezkaturik eta haien izenean.”

Zioak: Beharrezkoa da aldi baterako eta sektore bateko xedea duten erakundeak agertzea informaziorako eta parte-hartzerako eskubidea duten subjektu gisa.

**13. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluko f) letra aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“f) Herritarren entitateak: Irabazi asmorik gabeko pertsona juridikoak, antolamendu juridikoarekin bat eraturakoak, aldi baterako nahiz xede baterako sortutakoak izanik herritarren parte-hartzea eta elkarlana sustatzearekin lotutako helburuak dituztenak edo jarrera jakin batzuk defendatu nahi dituztenak, Administrazio Publikoari ekarpenak egin nahi dizkietenak haiengan eragina duten jarduketak garatzeko. Herritarren entitate horiek foru lege honetan jasotako Herritarren Parte-hartzerako eta Elkarlanerako Erregistroan inskribaturik egon ahalko dira.”

Zioak: Herritarren entitateen kontzeptua murriztailea eta motza ez ezik, irrealia ere bada, eta Nafarroako gizartearen antolamendu- aniztasunetik eta -aberastasunetik urrun dago.

**14. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluari beste letra bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“g) Edozein eskatzaile: pertsona fisiko nahiz juridikoa, bai eta informazioa eta parte-hartze publikoa eskatzen duten elkarte, erakunde edo taldeak ere, horixe bera behar adinako baldintza izanen baita interesdun izaera eskuratzeko, lege honetan ezarritakoaren ondorioetarako.”

Zioak: Proiektuaren zirriborroan jada jasota zegoen. Jaso ez izana legearentzako murriztapen handia da eta guztiz mugatzen du informaziorako eta parte-hartzerako gizarteak duen eskubidea.

#### 4. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

### 15. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Beste zuzenketa batzuetan proposatzen den bezala, gobernu irekiaren gaia ez da foru lege honen bidez arautu behar. Gobernu edo Administrazio parte-hartzaileen sinonimo gisa, prozesuen erregulazio guztian, antolaketan eta herritarrekiko harremanak izateko moduan islatu beharra dago; gobernu irekiak, izan ere, parte hartzeko bidea ematen duen gobernu edo administrazioaren sinonimoa bada, prozesu ororen arauetan egon behar du islatua.

Bestalde, artikulua honetan bildutako printzipio ia guztiak beste lege batzuetan aipatuta daude, bereziki Herri administrazioen araubide juridikoaren eta prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean, edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru legean, eta ez diote ezer eransten; izan ere, testua luzatu besterik ez dute egiten.

### 16. ZUZENKETA

#### NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko d) letra aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“d) Herritarren parte-hartze eta elkarlanaren printzipioa: Administrazio Publikoak, bere politiken diseinuan eta bere zerbitzuen kudeaketan, bermatu behar du herritarrek, bai bakarka bai taldeka, gai publikoetan parte hartzeko, laguntzeko eta inplikatzeko aukera izan dezatela. Halaber, iritzia eskatu behar du, zuzeneko kontsulten bidez, egokitzen jotzen diren gaietan.”

Zioak: Zuzeneko kontsultaren bidez iritzia eta parte-hartzea eskatzea ezinbesteko urratsa da, XXI. mendeko Gobernu Irekiaren aldeko apustua egin nahi bada.

### 17. ZUZENKETA

#### NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko d) bis letra berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“d) bis Berdintasunaren printzipioa: administrazioek jardun behar dute herritar eta erakunde guztien arteko berdintasun printzipioa garantizatuz, alde batera utzita herritar edo erakunde horiek nolako jatorri, arraza, kultura, erlijio, ideologia edo hizkuntza duten.”

Zioak: Berdintasunaren printzipioak nahitaez izan behar du honelako lege baten erdigunea.

### 18. ZUZENKETA

#### BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko o) letra gehitzeko zuzenketa.

“o) Aniztasun demokratikoaren printzipioa: Administrazio Publikoak herritarren aniztasuna aitortzen du, eta komunikazio bide eta erabaki desberdinak ahalbidetuko ditu, oinarrizko printzipio demokratikoak aitortuta.”

Zioak: Aniztasuna, zaindu eta errespetatu beharreko ondasun positibo gisa, mekanismo eta tresna berekiak eskatzen ditu, printzipio honi dagokionez. Gure lurraldeari funtsezko aberastasuna ematen dioten ezaugarrietako bat da, eta ezaugarri horiek lehentasunezkoak izan behar dute.

#### 5. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

### 19. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geratuko da idatzita:

“5. artikulua. Informazio-eskubidea eta doakotasuna.

1. Prozedura administratiboari buruzko oinarrizko legediak aitortzen dituen eskubideak gorabehera, edozein pertsonak du eskubidea, eskaera aurkeztuta, administrazio publikoek beren esku duten informazio guztia lortzeko. Horretarako, ez da interes jakinik adierazi behar, eta mugak izanen

dira, soilik, lege honetan, beste batzuetan edo lege mailako beste edozein arautan espresuki ezarritakoak.

Informaziotzat joko da administrazio publikoen esku dagoen edozein datu edo agiri, edozein dela ere bere jatorria edo data, eta edozein duela ere sorbidea, biltze-modua edo eskurabidea: idatzia, inprimatua, soinuak, bisuala, elektronikoa etab.

2. Eskubide horren barruan dago eskatutako informazioa jaso ahal izatea hautatutako moduan edo formatuan, baita Administrazio elektronikoaren bitarteko eta euskarrietan ere, betiere administrazio publiko eskudunek horretarako modurik baldin badute.

3. Eskubide horren barruan dago, baldin eta informaziorik ez bada eman, jakin ahal izatea zergatik ez den eman eskatutako informazioa, bai batere informaziorik eman ez denean bai neurri batean eman ez denean, eta zergatik ez den informazioa eman eskatutako moduan edo formatuan.

4. Foru lege honetan araututako informaziorako sarbidea, orokorrean, doanekoa da. Kopia egiteagatik eta informazioa jatorrizko ez beste formatu batera eramateagatik tasa bat edo prezio publiko bat ordaintzea eska liteke.

Zioak: Foru legearen helburua zehaztasun handiagoz definitzea. Testua erraztea eta jada beste lege batzuetan dauden edukiak kentzea, hala nola, errekursoak aurkezteko eskubidea edo Nafarroako Arartekoari kexa bat aurkezteko eskubidea, antolamendu juridikoari ezer ere ez diotela-ko eransten.

## 20. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluko 1. idatz-zatiari b) bis letra berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“b) bis. Eskatutako informazioa jasotzea Nafarroako bi hizkuntzetako edozeinetan, gaztelaniaz zein euskaraz, eskatzaileak aukeratu bezala.”

Zioak: Ezin da Gobernu Irekiari buruzko Lege bat onetsi, informaziorako eskubidea bermatze aldera, beste eskubide batzuk urratuz.

## 21. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5.1. f) artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“f) Eskatutako informazio publikoa aukeratutako moduan, berezko hizkuntzan edo formatuan jasotzea, foru lege honetan aurreikusitakoarekin bat.”

Zioak: Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea; horrenbestez, informazio publikoa euskaraz adierazi beharra dago aldi orotan.

## 22. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5.2. b) artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“b) Foru lege honetan aipatutako planak eta programak prestatzeko, aldatzeko, erabakitze eta berrikusteko prozesuetan egiaz eta eraginkorki parte hartzea.”

Zioak: Nabarmentzea parte-hartzeak eta erabakiak hartzeak nahitaez lotuta egon behar dutela jokabide demokratikoarekin.

## 23. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluko 2. idatz-zatiari b) bis letra berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“b) bis. Kontsulta bidez zuzenean galdetua izatera, garrantzi publikoa izateagatik, interes sozialerengatik nahiz Administrazio Publikoak egokitzen jotzeagatik, hala jotzen den kasuetan.”

Zioak: Nafar herritarrei aitortu behar zaie zuzenean kontsultatuak izateko eskubidea, haiengan eragina izanen duten eta haien bizi-kalitatea markatuko duten gaiei buruz.

**6. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

**24. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA-EZKERRA**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Beste zuzenketa batzuetan proposatzen den bezala, gobernu irekiaren gaia ez da foru lege honen bidez arautu behar. Gobernu edo Administrazio parte-hartzaileen sinonimo gisa, prozesuen erregulazio guztian, antolaketan eta herritarrekiko harremanak izateko moduan islatu beharra dago. Hori dela eta, ez du zentzurik suposatzea foru lege berariazko bakarrean erregula daitekeenik; izan ere, lege guztiek parte hartzeko eta komunikazio iraunkorrerako printzipio honek ukituta egon behar dute.

**8. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTUTAKO ZUZENKETA**

**25. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA-EZKERRA**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geratuko da idatzita:

“8. artikulua. Antolaketa eta koordinazioa.

1. Administrazio publikoak behartuta daude beharrezkoak diren antolamendu-neurriak hartzea, informazio-sistema integral bat edo jakintzaren kudeaketaren sistema integral bat izate aldera, ziurtatuko duena herritar guztiek eskura izanzen dutela informazioa.

2. Administrazio publikoek unitate espezifikoak jarriko dituzte, behar diren bitartekoez hornituak, arduratuko direnak herritarrek eskatutako informazioa kudeatzeaz.

3. Administrazio publikoek lankidetzarako eta koordinaziorako mekanismoak ezarri beharko dituzte; betebeharrak horren helburua da herritarrei modurik eraginkorrean ematea bidea foru lege honetan aitortutako eskubideak baliatzeko.

Zioak: Testua foru legearen aplikazio esparruari egokitzea –esparru horrek administrazio publiko guztiak hartu behar ditu–, eta lankidetzaren betebeharrak osatzea foru legetik eratorritzen diren betebeharrak betetzeko behar den antolamendua ezartzekoarekin.

**11. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

**26. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA-EZKERRA**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

11. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Arau errepikakorra da, foru legera eta beste lege batzuetara jo besterik egiten ez duena. Ez dio ezer berririk ekartzen antolamendu juridikoari, ez bada foru legearen testua luzatzea.

**12. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

**27. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA-EZKERRA**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

12. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Arau errepikakor eta nahasia da, eta ez dio ezer berririk ekartzen antolamendu juridikoari, ez bada foru legearen testua luzatzea.

**28. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

12. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“1. Jardueraren gardentasuna eta herritarrek gai publikoetan inplikatzeko bermatzeko, garrantzi handienekotzat jotzen den informazio publikoa etengabe ematea eta zabaltzea, betiere egiazko informazioa, objektiboki eta modu eguneratuan, eta proportzionaltasunaren printzipioa aplikatuz, haien zabalpenari dagokionez, komunikabide pribatuak erabiltzen direnean”.

Zioak: Nafarroako komunikabide desberdinen artean, pribilegioak eta mesede-tratuak saihestea.

### 13. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

#### 29. ZUZENKETA

##### IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geratuko da idatzita:

“13. artikulua. Betebeharrak.

1. Administrazio publikoek, oro har, eskuragarri jarri behar diete informazioa herritarrei; informazio argia, objektiboa, eguneratua eta eskuraeraza. Honakoa da eskuragarri jarri beharreko informazioa:

a) Beren antolamendu-egitura, adierazita zer eginkizun dituen organo bakoitzak, zer egoitza duen eta dituen langileen direktorioa. Horrela jokatu beharko dute, halaber, administrazio publiko bakoitzarekin lotura duten sozietate publikoek, fundazio publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek. Denek adierazi beharko dute nola jarri beraiekin harremanetan telefonoz, postaz edo bitarteko elektronikoz. Informazio horren barruan sartuko da aholkularitzako organoei buruzko informazioa eta interes sozialen parte-hartzea bideratzen duten organoei buruzkoa; adieraziko da organoek zein kidek osatzen dituzten, eta, kasua bada, kide horiek zer erakunde ordezkatzan dituzten.

b) Ordainsariak, baita, kargua uztean jasotzeak direnak ere halakorik egonez gero; goi karguen adierazpenak beren jardueri eta ondasunei buruz, barne direla azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legean ezarritakoak, hau da, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioari dagokionez, hautetsi guztien eta izendapen libreko kargu guztien adierazpenak, beren jardueri eta ondasunei buruzkoak. Era berean, langile publikoen guztizko ordainsariei buruzko informazio orokorra, mailaka, lanpostuka eta organoka adierazita.

c) Nortzuk diren langileak ordezkatzan dituzten organoetako kideak, eta zenbat diren organo bakoitzean dauden liberatu sindikalak, adierazita zer erakunde sindikaletakoak diren, bai eta liberatze horiek administrazio publikoei eragiten dizkieten kostuak ere.

d) Honakoen inbentario eguneratua: prozedura administratiboena, adierazita horietako zein gauzatu daitezkeen formatu elektronikoan; idazkiak eta komunikazioak aurkez daitezkeen erregistroe-

na; eta herritarrek parte hartzeko dauden prozedurarena.

e) Zerbitzuen katalogo orokorra eta prestatutako zerbitzu-kartak, barne direla betiere zerbitzua- ren funtzionamenduari buruzko kexak aurkezteko prozedurak.

f) Indarrean diren aurrekontuak; aurrekontu osoak, edukiaren aldetik, eta exekuzio-maila eguneratuta, hiru hilabetetik behin. Halaber, gutxienez azken bost ekitaldietako kontu orokorrak. Bereziki, xehakatur agertu beharko du azken ekitaldian zer gastu egin den herri-lanetan, hauteskunde prozesuetan, eta publizitate instituzionaleko kanpainetan.

g) Indarrean den araudia, lege eta erregelamendu mailakoa, hirigintzako planeamendua barne dela, eta, arau-proiekturik tramitatzen ari bada, proiektu hori eta bere aurrekariak.

h) Formalki onetsitako jarduketa-planak eta -programak, eta, bereziki, xedapen arau-emaile batean ezarritakoa betetze aldera onetsiak izan direnak.

i) Elkarlanerako hitzarmenei, kontratuei, esleipenei eta diru-laguntzei buruzko informazioa, foru lege honetan ezarritakoarekin bat.

j) Zabalkunderako garrantzitsuena den informazio geografikoa eta ekonomikoa, adieraziz zein diren erabilitako iturriak, ohar metodologikoak eta erabilitako ereduak.

k) Nafarroako estatistika planetatik eratorritako informazio guztia.

l) Zerbitzu publikoen kalitatearen gaineko ebaluazioen emaitzei buruzko informazioa, baita politika publikoen eragin sozialaren ebaluazioaren emaitzei buruzkoa ere.

m) Administrazio publikoen baimena, kontrola edo fiskalizazioa eskatzen duten egintza administratiboak gauzatzea ahalbidetzen duten baimen administratiboak, lizentziak, erantzukizuneko aitopenenak eta bestelako egintza administratiboak, baldin eta zuzeneko eragina badute jabari publikoaren kudeaketan edo zerbitzu publikoen ematean.

n) Lan eskaintza publikoa, langileak hartzeko deialdiak, berdin lanpostu finkoetarako edo aldi baterakoetarako, lanpostuak betetzeko deialdiak, hautaketa-prozesuetako emaitzak, eta aldi baterako kontratazioetarako zerrendak nahiz lan prestakuntzako edo gora jotzeko prozesuetan sortzen diren zerrendak, halako moduz non izangai bakoitzak modua izanen baitu jakiteko uneoro bera zein postutan dagoen.



ñ) Kide anitzeko organoen erabakien laburpenak, eta kide bakarreko organoen erabakienak, baldin eta, esleiturik duten jarduerarengatik, oro har herritarrentzat garrantzitsutzat jotzen den informazioa izan badezakete.

o) Indarreko araudiari jarraikiz publiko egin beharrekoa den gainerako informazio guztia.

2. Zerbitzu publikoak kontzesio-hartzaile baten bidez ematen direnean, administrazio publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte kontzesioa hartzen duenak zerbitzu publiko horiei buruzko informazioa eman dezan, kontzesio-kontratuaren ondoriozko betebeharrak gisa.

Zioak: Testua egokitzea foru legearen esparruari –administrazio publiko guztiak hartu behar ditu esparru horrek–. Herritarren eskura egon behar duten informazioen zerrenda osoagoa egitea.

### 30. ZUZENKETA

#### BILDU-NAFARROA

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13. c) artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“c) Funtzio publikoaren gardentasuna:

1. Departamentuetan eta erakunde publikoetan dauden liberatu sindikalen kopurua, orokorki haien sindikatua zein den adieraziz, eta liberazio horiek Administrazio Publikoari sortzen dioten kostua. Halaber, erabilitako ordu sindikalen kopuruaren berri emanen da.

2. Barne buruzagitzen kopurua. Halakotzat ulertuko dira merezimendu lehiaketa bidez bete ez direnak, bai eta haiek betetzen dituzten pertsonen zerrenda izenduna ere.

3. Menpekorik gabeko buruzagitzen kopurua. Halakotzat ulertuko dira menpekorik ez duten buruzagitzak, bai eta haiek betetzen dituzten pertsonen zerrenda izenduna ere.

4. Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuan lan egiten duten langile guztiek lan egindako aparteko orduen zerrenda izenduna, bai eta ordu horietan lan egiteko justifikazioa azaltzen duten txostenak ere.

5. Langileak aldi baterako kontratatzeko zerrendak, eta prestakuntza eta igoera prozesuetan sortzen direnak, izangai bakoitzak aukera izan dezan unean-unean zer postutan dagoen jakiteko.

6. Langile publikoek beren izenean jasotako ordainsari guztiei buruzko informazio orokorra.

Zioak: Funtzio publikoa ezin da gardentasun-planetatik kanpo geratu. Administrazioaren zerbitzuan ari diren langile guztiek gardentasunaren adibidea izan behar dute.

### 31. ZUZENKETA

#### NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13. artikulua l) eta n) letrak aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“l) Elkarlan hitzarmenei, kontratuei, esleipenei eta diru-laguntzei buruzko informazioa, foru lege honetan ezarritakoarekin bat”

“n) Hiri planeamendua eta lurraldearen antolamendua, eta obra publikoen gauzatzea, foru lege honetan ezarritakoarekin bat”

Zioak: Informaziorako eskubideari buruzko legea sortzen ari bagara, lege berri honen bokoak izan behar du beste lege batzuetan ageri diren mugak gaintzea eta zuzentzea.

### 32. ZUZENKETA

#### BILDU-NAFARROA

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13. artikuluko r) eta x) letrak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Letra hauen edukia 13. c) artikulua aldatzeko eginiko zuzenketa sarturik dago.

### 33. ZUZENKETA

#### NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13. artikuluko x) letra aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“x) Enplegatuei eta kargupublikoek jasotako ordainsariei buruzko informazio orokorra, xehaketa, mailen, erantzukizunen eta karguen arabera antolaturik”

Zioak: Gardentasunak eta informazioak argiro jaso behar ditu kargu publiko guztiak, politikoak izan nahiz ez izan, alde batera utzita zein erakundetakoak diren.

**14. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

**34. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

14. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geratuko da idatzita:

“14. artikulua. Informazio publikoa berrerabiltzea.

1. Informazio publikoa berrerabil dadila sustatuko dute administrazio publikoek. “Berrerabiltzea” honakoa dela ulertuko da: herritarrek erabiltzea administrazio publikoen esku dauden eta erabilera librekoak diren datuak merkataritzako helburuetarako edo bestelakoetarako, betiere erabilera hori ez bada jarduera administratibo publiko bat, eta Estatuaren oinarritzko legeriarekin bat erabiltzen badira; eta, zehazki, sektore publikoaren informazioa berrerabiltzeari buruzko araudiarekin bat.

2. Honako helburu funtsezko hauek bilatuko ditu berrerabilerak:

a) Herritarrei bidea ematea hobeki ezagut dezaten sektore publikoaren jarduera.

b) Datu horietan oinarritutako informazio produktu eta zerbitzuak sortzeko erraztasunak ematea.

c) Datuak erabiltzeko erraztasunak ematea, enpresa pribatuek balio erantsiko informazio produktuak eta zerbitzuak eskain ditzaten.

d) Merkatuko lehia erraztea, horren faltsutzea mugatuz.

3. Ondorengo artikuluan xedatutakoa galarazi gabe, administrazio publikoek sustatuko dute, oro har, datuak libreki berrerabiltzea, alde zuzeneko eskaera egin beharrik gabe eta berrerabiltzeko eredu zuzeneko lizentziarik eman beharrik gabe. Datuak berrerabiltzeko alde zuzeneko lizentzia beharko da soilik sektore publikoaren informazioaren berrerabilerari buruzko legedian espresuki ezarritako kasuetan.

Zioak: Testua egokitzea foru legearen esparruari –administrazio publiko guztiak hartu behar ditu esparru horrek–. 14. eta 15. artikulua modu errazagoan idaztea, eta lizentziaren premia murriztea.

**35. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

14. artikuluko 2. idatz-zatikoko c) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dirudi ez komenigarria, ez beharrezkoa denik lege honen bitartez enpresa pribatua arautzen eta zuzenean animatzen jardutea, informazioa negoziarako produktu gisa erabil dezan. Horrela adierazten ez bada ere eta debekatuta ez dagoenez, haiexek arduratuko dira hori egiteaz.

**15. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

**36. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

15. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Testua errazte aldera, egokia da aurrekoarekin batzea.

**16. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

**37. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“Administrazio Publikoak... sustatuko du... diru-laguntzak eta lurraldearen antolamendua eta hirigintza edo administrazio publikoaren bestelako edozein jarduketa”

Zioak: Idazkerari erreparatuta, badirudi garden-tasunaren esparruak mugatzen dituela.

**17. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTUTAKO ZUZENKETA**

**38. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

17. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geratuko da idatzita:

“17. artikulua. Gardentasuna kontratazio publikoan.

Kontratu publiko guztiei buruzko informazioa emanen da Nafarroako Kontratazioaren Atariaren bidez, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legean ezarritakoarekin bat.

Zioak: Kontratuen gardentasunaren erregulazioa Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legean saratu beharra dago, halako moduz no operadore juridikoek ez duten bi testu desberdinetara joan beharrik izanen. Gardentasunari buruzko erregulazio osoa foru lege honetan sartzeko aukera desegokia da; adituei eta ikertzailerei baizik ez die mesederik eginen, baina operadore juridikoek interes handiagoa izaten dute araudi sektoriala aplikatzeko gardentasunari buruzko xedapen guztiak ezagutzeko baino. Horrenbestez, bidalketa hori proposatzen da eta, beste zuzenketa batekin, xedapen gehigarri bitartez, Kontratuei Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzea.

#### 18. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

### 39. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kontratuen gardentasunaren erregulazioa Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legean saratu beharra dago, halako moduz no operadore juridikoek ez duten bi testu desberdinetara joan beharrik izanen. Gardentasunari buruzko erregulazio osoa foru lege honetan sartzeko aukera desegokia da; adituei eta ikertzailerei baizik ez die mesederik eginen, baina operadore juridikoek interes handiagoa izaten dute araudi sektoriala aplikatzeko gardentasunari buruzko xedapen guztiak ezagutzeko baino. Horrenbestez, aurreko artikuluan jasotako bidalketa hori proposatzen da eta, beste zuzenketa batekin, xedapen gehigarri bitartez, Kontratuei Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzea.

### 40. ZUZENKETA

#### NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“1. Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Lege honekin bat arautuko da zerbitzuen esleipena. Legearen aplikazioari dagokionez, arlo hau Nafarroako Kontratazio Atariaren bidez antolatuko da.”

Zioak: Zerbitzuak ematea arlo garrantzitsua eta sentibera denez, lege honen araupetzetik kanpo uzteak eta egungo legedian jasotako mugei eustekak legean hutsune handia uztea eraginen lukete.

### 41. ZUZENKETA

#### NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“3) Ondorio horietarako, Administrazio Publikoak eta haren menpeko erakundeek klausula administratiboan...”

Zioak: Administrazioaren menpeko egitura publikoek argiro sarturik egon behar dute konpromiso honetan.

#### 19. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

### 42. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela gertatuko da idatzita:

“19. artikulua. Gardentasuna elkarlan hitzarmenetan.

1. Hitzarmenen eta Itunen Erregistroa –Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 92. artikulua sortu zuen– publikoa izanen da eta edozeinek kontsultatzen ahalko du, doan, bertaratuta nahiz Internetez.

2. Toki entitateek, hala erabakitzen badute, beren Hitzarmenen eta Itunen Erregistroa sortzen ahalko dute, baina, betiere, informazioa eskuratzeko ahalko da bertaratuta nahiz Internetez.

Zioak: Nahiago izatekoa da hitzarmenen gardentasunaren araupetzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen bitartez egitea. Gardentasunari buruzko erregulazio osoa foru lege honetan sartzeko aukera desegokia da; adituei eta ikertzailerei baizik ez die mesederik eginen, baina opera-

dore juridikoek interes handiagoa izaten dute araudi sektoriala aplikatzeko gardentasunari buruzko xedapen guztiak ezagutzeko baino. Horrenbestez, proposatzen da bidalketa hori egitea, eta, nolana ere, erregistroaren edukia foru lege horren erregelamendu bidezko garapenaren menpe uztea. Eta foru lege honen esparruak administrazio publiko guztiak hartu behar dituzenez, beste zuzenketa batzuetan proposatzen den bezala, toki entitateen aipamena egiten da.

## 20. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

### 43. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA-EZKERRA

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honakoa izan behar du testuak:

“20. artikulua. Diru-laguntzen gardentasuna.

1. Administrazio publikoek ematen dituzten diru-laguntza guztiei buruzko informazioa eskuratzen ahalko da kasuko administraziora bertaratuta nahiz Internetez.

2. Edozein modutan, honako gaiei buruzko informazioa eman beharko da:

a) Aurrekontu-ekitaldian aurreikusirik dituen laguntzen edo diru-laguntzen deialdien zerrenda eguneratua, adieraziz zer zenbateko erabiliko diren, helburua edo xedea eta onuradun izan daitezkeen deskribapena.

b) Ondokoak jasoko dituen zerrenda bat: diru-laguntza bakoitza aplikatuz lortu nahi diren helburuak eta onura publikoko edo sozialeko eraginak, horiek erdiesteko egokitzat edo beharrezkotzat jotzen den epea, aurreikusitako guztizko kostuak eta finantzatzeko bestelako iturririk izan daitekeen edo ez.

c) Diru-laguntzen bidez lortu nahi diren helburuek merkatuan eraginik baldin badute, arazoiturik azalduko da, batetik, diru-laguntza horiek zer neurritan dauden bideraturik hutsak zuzentzera (hutsak identifikatuko dira) eta, bestetik, arazoituriko da haien eraginek zer neurritan ekarriko duten distorsiorik txikiena merkatuan.

d) Diru-laguntzen deialdien testu osoa.

e) Diru-laguntza horien esleipenak, horiek jakinarazi edo argitaratu eta ondoko hilabetean, honako hauek adieraziz: onuradunen zerrenda, lagun-

tzen zenbatekoa eta dagokien araudiaren identifikazioa.

Salbuespen gisa, isilpean gordetzen ahalko da onuraduna nor den, baldin eta, kasuko diru-laguntzaren xedea dela-eta, onuradunaren datuak argitaratzea ohorearen, errespetuaren eta babesaren aurkakoa bada, edo pertsona fisikoen intimitate pertsonal eta familiarren aurkakoa, oinarri hartuta Ohorea, intimitate pertsonala eta familiarra eta norberaren irudia izateko eskubidearen babes zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa.

f) Espediente bakoitzaren datuekin batera, datu globalak ere eskaini beharko dira, ordenatuta gutxienez ere entitate adjudikazio-hartzaileka, urtaldika, diru-laguntzen motaka eta diru-laguntzen prozeduraka.

4. Erregelamenduz ezarritako diru-kopuruak gainditzen dituzten diru-laguntza publikoak emateko oinarri arautzaileetan, ezarriko da diru-laguntzen onuradunek beren zuzendaritza eta gobernu organoen osakerari eta ordainsariei buruzko informazioaren berri eman beharko diotela Administrazio Publikoari, hark jendaurrean jarri ahal ditzan.

Zioak: Oraingoan proposatzen dugu araupeztzea testu honetan ezartzea, zeren eta Foru Komunitateko administrazioaren diru-laguntzak eta Nafarroako toki entitateena lege desberdinen pean baitaude. Gardentasunaren araubidea, hala eta guztiz ere, bera izan beharko litzateke. Araubide hori batu eta informazio exhaustiboa bermatuko duen testu bat proposatzen dugu.

### 44. ZUZENKETA

#### NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluko 1. idatz-zatiaren e) letra aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“e) Laguntza edo diru-laguntza horien esleipenak, horiek jakinarazi edo argitaratu eta ondoko hilabetean, honako hauek bakarrik adieraziz: onuradunen zerrenda, laguntzen zenbatekoa eta dagokien araudiaren identifikazioa. Halaber, urtero, aurreko ekitaldian esleitutako diru-laguntzen zerrenda argitaratuko da.”

Zioak: Ez da ulergarria laguntzetan eta diru-laguntzetan informaziorako muga artifizialak jarri ahal izatea.

**45. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

20.1. e) artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“e) Laguntza edo diru-laguntza horien esleipe-nak, horiek jakinarazi edo argitaratu eta ondoko hilabetean, honako hauek bakarrik adieraziz: onuradunen zerrenda, laguntzen zenbatekoa eta dagokien araudiaren identifikazioa. Halaber, urtero, aurreko ekitaldian esleitutako diru-laguntzen zerrenda argitaratuko da”

Zioak: Inongo diru-laguntzarik ezin zaie ezkutu herritarrei. Zergadunaren diruaz ordaintzen diren diru-laguntzen erabileran gardentasuna izateaz hitz egiten ari bagara, ezin da egon Administrazioak erreserbatutzat deklaraturako espedienterik, ez eta espediente horien amaierako jomugaren berri izatea eragozten duen inongo araudirik ere.

**46. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

20.2. 1) artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“f) Publizitatea eta lehia sustatu gabe emandako diru-laguntzak”

Zioak: Inongo diru-laguntzarik ezin zaie ezkutu herritarrei. Zergadunaren diruaz ordaintzen diren diru-laguntzen erabileran gardentasuna izateaz hitz egiten ari bagara, ezin da egon Administrazioak erreserbatutzat deklaraturako espedienterik, ez eta espediente horien amaierako jomugaren berri izatea eragozten duen inongo araudirik ere.

**47. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

20. artikuluko 1. idatz-zatiaren letra aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

f) Publizitatea eta lehia sustatu gabe emandako diru-laguntzak.

Zioak: Ez dira onargarriak kasuan kasuko gobernuak aldebakartasunez erabakitako isilpeko-tasun subjektiboak, hau bezain sentibera den gai batean.

**48. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

20.2. artikuluari beste letra bat, g) letra, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“g) Diru-laguntza guztiak publikoak izanen dira. Diru-laguntzen jardueran gardentasun handiena bermatzeko. Administrazio Publikoak ezin izanen du inongo diru-laguntzarik isilpekotzat jo, eta ezin izanen da inongo araudirik egon artikuluko honen aplikazioa eragozten duenik”

Zioak: Inongo diru-laguntzarik ezin zaie ezkutu herritarrei. Zergadunaren diruaz ordaintzen diren diru-laguntzen erabileran gardentasuna izateaz hitz egiten ari bagara, ezin da egon Administrazioak erreserbatutzat deklaraturako espedienterik, ez eta espediente horien amaierako jomugaren berri izatea eragozten duen inongo araudirik ere.

**49. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

20. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da onargarria eztabaidatu eta onetsi beharreko lege hau beste batzuk baino maila apalagokotzat jotzea.

**21. ARTIKULUARI  
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK****50. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

21. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nahiago izatekoa da planeamenduko tresnen gardentasunaren erregulazioa Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen bitartez egitea. Gardentasunari buruzko erregulazio osoa foru lege honetan sartzeko aukera desegokia da; adituei eta ikertzaileei baizik ez die mesederik eginen, baina operadore juridikoek interes handiagoa izaten dute araudi sektoriala aplikatzeko gardentasunari buruzko xedapen guztiak ezagutzeko baino. Horrenbestez, beste zuzenketa batean proposatzen da foru lege hori aldatzea xedapen gehigarri baten bitartez.

**51. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

21. artikuluari 2. idatz-zatiari letra berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“f) Interes orokorreko proiektuei dagokiena, edo daukaten tamaina, eragin edo inpaktuarengatik herritarren ezagupena eta iritzia komenigarria denean.”

Zioak: Egindako zerrendak ez ditu biltzen bildu beharko liratekeen beste gai asko.

**22. ARTIKULUARI  
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

**52. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

22. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“1. Herritar guztiek dute informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, dela norberaren izenean eta bakarka eskaturik, dela herritarrak bildu edo ordezkatzan dituzten legez eraturiko erakundeen izenean edo interes partzial baten jarraipenerako nahiz defentsarako eraturiko erakundeen izenean, aurretik eskatuta eta foru lege honetan finkatzen diren mugak ezarrita.

Zioak: Horrelako erakundeak sartzea errealismo ariketa bat da, eta parte-hartzerako jarrera irekia erakusten du.

**53. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

22. artikuluari beste idatz-zati bat, 3. zenbakiduna, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“3. Administrazioak informazio-eskaera dela eta prestatzen duen informazioak hizkuntza-eskubideak bermatu beharko ditu. Informazio-eskaera horri erantzunen zaio eskaria aurkeztu den erkidegoko hizkuntza berekian.”

Zioak: Hizkuntza eskubideak bermatzea informazio publikoan.

**23. ARTIKULUARI  
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

**54. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

23. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honakoa izan behar du testuak:

“23. artikulua. Informazioa eskuratzeko eskubidearen mugak.

1. Informazioa eskuratzeko soilik ukatuko da edo mugatuko da lege batek edo lege mailako arau batek ezartzen duenean datuak konfidentzialak edo sekretuak direla.

2. Informazioa ukatzen ahalko da sekretu profesionalari zuzenean eragiten dioenean eta jabetza intelektualari eta industrialari. Interesdunari adieraziko zaio zein den eskubideen titularra edo nork lagata eskuratu den informazioa. Edonola ere, datu pertsonalak dituen informazioa eskuratzeko eskaeren ebazpenerako, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoan xedatutakoari jarraituko zaio.

3. Informazioak zerikusia baldin badu ikerketa penal batekin edo alde aurretiko informazio-espeditante batekin, zehapen-espeditante batekin edo diziplina-espeditante batekin, informazio ematea atzeratu egiten ahal da, harik eta hori amaituta dagoen arte ebazpenez edo epai irmo batez edota artxibatzen den arte.

4. Aipatu diren mugetakoren bat baldin badago eskatutako informazioa emateko, ahal izanez gero informazio hori modu partzialean eskuratzeko bidea emanen da, mugapean dagoen informazioa eman gabe utzita.

Zioak: Eskatutako informazioa ukatzeko arrazoiak hertsiki mugatzea. Proiektuak Europako Kontseiluaren Ituneko 3. artikuluan, agiri publikoak eskuratzeko dela eta, jasotako ia arau osoa koptatu besterik ez du egiten, kontuan hartu gabe arau horrek ez duela ezezkoa emateko arrazoiak biltzen, baizik eta lege baten bidez aurreikusten direnek bilatu beharreko helburuak, zeinek “beharrezkoak izan behar baitute gizarte demokratiko batean”. Helburuak ezezkoa justifikatzeko muga bilakatzearena, hain zuzen ere proiektuak horixe egiten baitu, informaziorako eskubidea aldarazten du ia guztiz, zeren eta Administrazioari txeki txuri bat ematen baitu klausula orokor eta zabal-zabal araberako jokatzeko. “Zaintza, ikuskatze eta kontrolleko eginkizun administratiboak” bezalako adierazpideek administrazio publikoan jarduketara ia

guztia hartzen dute; “segurtasun publikoa,” “interes partikular legitimoak” lausotasun izugarria duten adierazpideak dira.

## 55. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

23. artikuluko 1. idatz-zatiaren b) letra aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“b) Administrazio Publikoak tramitatutako prozeduren sekretuari edo konfidentzialtasunari, baldin eta konfidentzialtasun edo sekretu hori lege honetan jasotakoaren arabera formalki erabakia badago”

Zioak: Lege hau baloratzea, interes orokorrek konfidentzialtasun edo sekretu hori aholkatzen duen kasuak bermatuz.

## 56. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

23 artikuluko letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: lhesbide bat izan daiteke hau.

## 24. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

## 57. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24. artikuluko 4. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Puntu hau Administrazioaren aukera subjektibo eta aldebakarrekoa izan daiteke kasuan kasuko arrazoia dela-eta ezagutza publikokoa ez izatea erabakitzen duen informazioa mugatzeko. Legearen balioaren zati handi bat gal daiteke bide horretatik.

## 25. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

## 58. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

25. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“1. Informazioa 23. eta 24. artikuluetan aipatutako mugaren baten pean baldin badago, ahal den guztietan jendearen eskura jarriko da, mugatutako informazioa kenduta, salbu eta horren ondorioz informazioa eraldatua, nahasgarria edo zentzuga-bea gelditzen bada.

2. Hirugarrenen datu pertsonalak dituen informazioaren kasuan, jendearen eskura jarriko da informazioaren anonimotasuna bermatzen denean modu eraginkor batean, deusetan galarazi gabe foru lege hau gidatzen duen gardentasun-printzipioa.

Zioak: Administrazioa herritarrek informazio publiko osoa eskuratu ahal izatea bermatzeko moduan ez dagoen bitartean, informazio publiko hori eskuratzeko eskabide guztietarako aldi baterako arau bat egin beharko da, eskabide horiek legearen artikuluetatik aterata.

## III. TITULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

## 59. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

III. tituluko II. kapitulua, 26. artikulutik 33. artikulura, kentzeko zuzenketa.

Zioak: Abiapuntu hartuz informazio publikoaren titularitatea herritarrena dela eta Administrazioa haren kudeatzailea dela, eta printzipio horrekin bat etorritik, III. tituluko II. kapitulua (26. artikulutik 33. artikulura) kentzea nahi dugu (kapitulu horretan informazio publiko eskuratzeko eskubiderako prozedura arautzen da). Izan ere, informazio publikoaren eskaria aldi baterako arau batzuen bitartez arautuko da –bigarren xedapen iragankorrean aurreikusi bezala, xedapen hori gehitzea proposatzen baitugu–, harik eta Administrazio Publikoak modua eduki arte datu pertsonalen babesari eta konfidentzialtasun administratiboari buruzko printzipioek (lege honetan behar bezala jasotakoak eta behar bezala justifikatuta) ukituta ez dagoen

informazio guztia euskarri librean eta doakoan eskaintzeko.

Halere, jotzen dugu informazio publikoa eskuratzeko prozeduraren araupetzea, kapitulu honetan jasotakoa, erreferentziako abiapuntu bat dela, informazio publikoa eskuratzeko arau bidezko ondorengo garapenerako.

## 29. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

### 60. ZUZENKETA

#### NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

29. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“2. Ukituari eskaera bidaltzearekin batera ebazteko epea eten eginen da, harik eta alegazioak jaso arte edo jakinarazten denetik aurrera kontatu beharreko hamabost egun balioduneko epea bukatu arte. Hirugarrenak erantzuten ez badu eskatutako epean, ulertuko da ados dagoela eskatutako informazioa ematearekin.”

Zioak: Isiltasunak positiboa izan behar du. Ezezkoa da justifikatu behar dena.

## 31. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

### 61. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

31. artikulua aldatzeko zuzenketa. 5. idatz-zatia gehituko da. Honako testua izanen du:

“5. Eskatutako informazioaren ezaugarriek horretarako bidea ematen badute, ebazpenaren jakinarazpenaren eranskin gisa gehituko da.”

Zioak: Prozedura soiltzea ekintza berean informazioaren ebazpena eta ematea gauza daitekeenean, horrela saihestuz interesduna organo administratiboaren egoitzetara joan behar izatea informazio hori jasotzeko.

## IV. TITULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

### 62. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

IV. titulua, 34. artikulutik 48. artikulura, kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proiektua zentratu beharko litzateke orain arte behar adina arautu ez den arlo batean –gardentasuna–, legeetan jada jasota dauden printzipioak errealitate bihurtuko dituzten mekanismo zehatzak osatu eta garatzeko. Ez da komeni testu berean arlo bat baino gehiago nahastea.

Herritarren parte-hartzearen arloak berariazko araupetzea eskatzen du, eta proiektuan jasotakoa baino anbizio handiagoa behar du (izan ere, ez da iristen ezta planteatzera ere toki araubideko legedian jasotako teknikak; esate baterako, auzokideen ekimena eta herri kontsultak egiteko aukera). Beste zuzenketa batean proposatzen da ezen, xedapen gehigarri baten bitartez, ezar dadila Nafarroako Gobernuak urtebeteko epean foru lege proiektu bereki bat egin beharko duela gaiari buruz.

Irizpide hori bera agertzen da Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoen 2012ko apirilaren 17an sinatutako txosten batean; txosten horretan aztertzen da zer eragin izan lezakeen hizpide dugun foru lege proiektuan Lehendakari-tza Ministerioa tramitatzen ari den lege-aurreproiektuak, gardentasunari eta gobernu onari buruzkoak. Honela dio: “Plantea liteke, legegintza egokiaren ikuspuntutik, bi foru lege proiektu tramitatzea. Batak mugarri izanen litzuke gardentasunari eta gobernu onari buruzko legearen behin betiko testuak ezarritakoak. Bestea, berriz, gobernu irekiaren gainekoa izan liteke, eta horrek eskatuko luke, agian, aztertzea zer eragin juridiko-konstituzional izan lezakeen; izan ere, gobernu irekiak oinarri dituen demokrazia parte-hartzailearen kontzeptuak eta erantzukizun-arauak ez datoz beti bat ordezkatzeko-sistema batek dituenarekin.



**35. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

**63. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

35. artikuluko 1. idatz-zatiari g) letra gehitzea. Honako testua izanen luke:

“g) Gai horiei buruzko zuzeneko kontsulta bideratzea eta egitea, foru lege honetan ezarri bezala.”

Zioak: Gai eta plan berezi hauetan zuzeneko kontsulta egitea herritarrek parte hartzeko zuzeneko elementu eraginkorra izan daiteke eta izan behar du.

**64. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

35. artikuluko 3. idatz-zatiko d) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lege hau arau berariazkoekin murriztea –legean jasotakoak bezain bermatzaileak eta garatuak ez diren arauekin– legea bera debalutzea da, esparru oso zabal bati dagokionez; izan ere, esparru hori legetik kanpo geratuko litzateke d) letra honen indarrez.

**36. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

**65. ZUZENKETA**

**BILDU-NAFARROA**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

36.2. c) artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“c) Herritarrek telematika bidez edo telefonia bidez ematen dituzten iritziak arretaz entzunen ditu, haien eskakizunei azkar eta eraginkortasunez erantzunen die eta haien iritziak kontuan hartuko ditu erabakiak hartzeko orduan. Horretarako, egoki iruditzen bazaio, zenbait jarduera publikoren gainean on line inkestak egitea sustatzen ahalko du, emaitzen fidagarritasuna eta anonimotasuna berma ditzaketen sistemak erabiliz.”

Zioak: Herritarren edozein kontsultak edo ekarpenak konfidentziasuneko gutxieneko berme batzuk eduki behar ditu.

**66. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

36. artikuluko 2. idatz-zatiari e) letra gehitzea. Honako testua izanen luke:

“e) Izaera orokorreko foro irekiak edo berariazko foroak sustatuko dira, parte hartzeko aukera gizarte osoarentzat zabalik egon ahal izan dadin.”

Zioak: Edozein herritarrek parte hartzeko aukera bermatzeko modu erreal bakarra da foro ireki bat aitortzea.

**37. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTUTAKO ZUZENKETA**

**67. ZUZENKETA**

**BILDU-NAFARROA**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

37. artikuluari beste idatz-zati bat, 3.a, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“3. Erregistro honetan izena emateko ezin izanen da inongo baldintzarik ezarri, sexu, ideologia, erlijio, egoera sozial edo beste edozein baldintza dela-eta bazterketa dakarrenik. Erregistroan izena emateko epea irekita egonen da beti, halako moduz non arduradunek zentsua gaurkotuko baitute hiru hilez behin.”

Zioak: Foru dekretu bidezko etorkizuneko garapenak berme-emailea izan beharko du, hain zuzen ere Herritarren Parte-hartzerako eta Elkarlanean Erregistroa anitza eta askotarikoa izateari dagokionez, horrelakoxea baita Nafarroako gizartea bera; halaber, tresna arin eta dinamikoa izanen da, osarari eta denborari dagokienez.

**39. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

**68. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

39. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“Kontsulta-foroak politika publikoak aztertu eta haien gainean eztabaidatzeko guneak dira, non herritarren taldeek edo herritarren entitateek parte hartzen baitute, politika publiko baten ondorioak

aztertu eta horien gainean gogoeta egiteko eta, orobat, politika horiek herritarren bizi-kalitatean izanen dituzten benetako ondorioen azterketa baloratiboak egiteko. Herritarren talde horiek demokratikoki hautatuko dira, Herritarren Parte-hartzerako eta Elkarlanerako Erregistroan inskribaturik egon eta eztabaida jakin bakoitzean parte hartzeko nahia espresuki adierazten dutenen artean, Administrazio Publikoak aurretik deialdia egingo da.

Zioak: Gure ustez, herritarrek kontsulta-foreetan duten parte-hartzea eta haien lankidetzaren herritarren eskariari berari egokitu behar zaizkio. Foro horien osaketak horri erantzun behar dio, eta ez zuhurtziarakotasun administratiboari.

## 69. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

39. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“39. artikulua. Kontsulta-foreak.

Kontsulta-foreak politika publikoak aztertu eta haien gainean eztabaidatzeko guneak dira, non herritarren taldeek edo herritarren entitateek parte hartzen baitute, politika publiko baten ondorioak aztertu eta horien gainean gogoeta egiteko Administrazio Publikoak aurretik deialdia egingo edo foroko partaideen heren batek eskatuta.

Zioak: Horrelako foroak deitzeak ez du izan behar, soilik, Administrazioaren egitekoa.

### 40. ETA 41. ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

## 70. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

40 eta 41. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da sostengarria parte-hartzeari eta gardentasunari buruzko “panelen” edo “epaimahaien” lege bat, haiek zuzenean hautatzen badira, Administrazioaren kontroletik kanpo, parte-hartzerako eta politika publikoak baloratzeko.

## 71. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

40.2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“2. Paneletan, kontsultaren gaiari buruzko interesa duten eta parte hartzeko borondatea duten herritarren eta herritar entitateen gutxieneko kopuru batek parte hartuko du, Herritarren Parte-hartzerako eta Elkarlanerako Erregistroan panelaren xedeko gaiari dagokion arloan, inskribatzen diren subjektuen artean.

Zioak: Ez da arrazoizkoa herritarren parte-hartzeari buruz hitz egitea eta Administrazio Publikoari azken hitza uztea norke parte hartuko duen erabakitzeko.

## 72. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

41. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“41. artikulua. Herritarren epaimahaiak.

Herritarren epaimahaiak Administrazio Publikoak sorturiko taldeak dira, eta haien helburua da Administrazioaren ekinga, programa edo proiektu jakin baten ondorioak aztertzea. Herritarren epaimahaietan gehienez hamar lagunek parte hartuko dute, erdiak herritarrek, eta beste erdiak herritar entitateen ordezkariak. Administrazioak demokratikoki hautatuko ditu, Herritarren Parte-hartzerako eta Elkarlanerako Erregistroan, mahaia sortzea ekarri duen gaiari dagokion arloan, inskribatutako subjektuen artean.

Zioak: Ez da arrazoizkoa Administrazioaren politikak eta haien eraginak aztertzeko garaian Administrazioa bera izatea balorazio horiek egin behar dituzten pertsonak edo entitateak hautatuko dituenak.

## 73. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

41. bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“41. bis artikulua. Herri kontsultak:

Lege proiektu bat izapidetzea proposatzen da, herri kontsultak Nafarroako Foru Komunitate osoan arautzeko”

Zioak: Parte hartzeko edozein proiektuk oso kontuan hartu beharra dauka hauteskunde kidego osoak parte-hartze zuzena izatea, gure erkidego-ko herritarren sentipena ezagutzeko bide gisa. Tresna hori toki esparruaren kasuan aurreikusita badago ere, foru erkidegoaren mailako araupetzea behar da.

#### 42. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

#### 74. ZUZENKETA

##### NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

42. bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“42 bis. Herritarrek eskubidea dute zuzenean galde dakien, erreferendum bidez, daukaten garrantziaren, eragin sozialarengatik nahiz transzendentzia publikoarengatik Administrazio eskudunak erabakitzen dituen edo foru lege honetan ezarritako termino eta prozeduren bidez eskatzen diren politika publikoetako gaietan.

Zuzeneko kontsulta bat gauzatu ahalko da kontsultaren gaiari dagokion administrazio eskudunak hala erabakitzen duenean edo behar adina herritarrek eskatzen dutenean. Kontsulta-eskaria izapidetzeko, Nafarroako zentsuan jasotako pertsonen % 3ren sinadurak beharko dira, Nafarroa osoan egin beharreko kontsulta denean, edo zentsuan jasotako pertsonen % 5en sinadurak, kontsulta toki mailakoa denean.

Zuzeneko kontsultarako prozedura bat erabakitzen denean, kontsulta-balioa izanen du Administrazioarentzat, eta berari egokituko zaio haren baldintzak eta garapena erabakitzea eta bermatzea.”

Zioak: Zuzeneko kontsulta edo erreferenduma demokrazia parte-hartzailearen printzipio bat da, zabal ezarrita eta normalizatuta dagoena herrialde askotan.

#### 44. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

#### 75. ZUZENKETA

##### NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

44. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“2. Horretarako, Administrazio Publikoko departamentu bakoitzak xedapen orokorrak prestatzeko abian diren prozeduren zerrenda gehituko du parte hartzeko esparru eta tresnetan, horiek abian jarritzen diren neurrian, eta bereziki Herritarren Parte-hartzerako Atarian”.

Zioak: Prozeduretan gardentasuna bermatzea eta parte-hartzerako eta Gobernu Irekirako tresnak eta mekanismoak optimizatzea.

#### 49. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

#### 76. ZUZENKETA

##### IZQUIERDA-EZKERRA

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

49. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honakoa izan behar du testuak:

“49. artikulua. Arrazionalizazio eta sinplifikazio prozesuaren helburuak.

Administrazio Publikoak administrazioa arrazionalizatu eta sinplifikatzeko prozesu bat bultzatuko du, hala prozedurena nola egiturena, baita administrazioa arautzen duen araudiarena ere, Administrazioa ulergarriagoa, hurbilagoa eta irisgarriagoa izan dadin herritarrentzat, eta herritarren zerbitzura arinago eta eraginkortasun handiagoz kudeatzeko gauza izan dadin, deusetan galarazi gabe herritarren eskubideak, bermeak eta segurtasun juridikoa.

Zioak: Beste zuzenketa batzuekin koherentzia izateko, ez da bidezkoa Gobernu Irekia proiektu honen bidez arautzea.

**50. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

**77. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

50. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“Administrazio Publikoak, urtebeteko epean, foru lege honek indarra hartu ondoren, Administrazioa Sinplifikatzeko Plan Orokor bat prestatuko du, administrazioa arrazionalizatzeko eta sinplifikatzeko neurriei bultzada bat emateko, bere eskumeneko prozedura eta egiturak ebaluatu ondoren.”

Zioak: Epe bat ezarri beharra dago, lege honen bidez ezarritako konpromiso politikoa zehaztuko duena.

**53. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTUTAKO ZUZENKETA**

**78. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

53. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“2. Plana Nafarroako Parlamentuak onetsiko du, eta haren edukia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Gobernuak Interneten duen Atarian argitaratuko da.”

Zioak: Honelako ezaugarriak dituen plan batek behar adina garrantzi eta transzendentzia dauzka Parlamentuak eztabaidatu eta onetsi behar izateko.

**VI. TITULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**79. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA-EZKERRA**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

VI. titulua, 58. artikulutik 60. artikulura, kentzeko zuzenketa.

Zioak: Titulu honen edukia errepikakorra da; izan ere, zerbitzu publikoen kalitatea lantzen du, nahiz eta arlo hori jada araututa dagoen arau

bereki batean, Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legean hain zuzen, eta nahiz eta proiektuak ezer berririk ekarri ez. Bestalde, eta foru lege harekin gertatzen den bezala, haren edukia ezaugarria da izaera juridikorik ez izatea, hertsiki hartuta, asmoak azaltzea, praktika zuzenen adibideak ematea eta irizpide teknikoak ematea, baina Administrazioa lotu gabe; ez du ez betebeharririk, ez kontrol bitartekorik ezartzen. Legearen testua luzatzea beste baliorik ez du.

**VII. TITULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**80. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA-EZKERRA**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

VII. titulua, 61. artikulutik 67. artikulura, kentzeko zuzenketa.

Zioak: Titulu honen edukia ez da beharrezkoa, eta beste lege batzuetan jada araututa dauden arloak lantzen ditu. Gobernuaren jarduna araututa dago Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legean, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legean eta Gobernu Onaren Kodea ezartzen duen martxoaren 17ko 2/2011 Foru Legean. Proiektuak biltzen ditu jada erregulatuta dauden gaietan, modu errepikakorrean kasu batzuetan; esate baterako, 64. artikulua bidalketa hutsezkoa da eta 62. artikulua, berriz, tratamenduei buruzkoa, ez da beharrezkoa.

**64. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTUTAKO ZUZENKETA**

**81. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

64. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“1. Nafarroako Gobernuko eta toki entitateetako kideek eta Administrazio Publikoko nahiz haren menpeko enpresetako goi kargudunek beren jardura osagarrietan aritzeagatik jasotzen dituzten ordainsariak eta haien xehekapenak eta bestelako diru-kopuruak jakitera emanen dira. Jakitera ema-

nen dira, orobat, beren agintaldiaren edo kargualdiaren hasieran, bitartean eta bukaeran dituzten ondare-ondasun eta eskubideak.”

Zioak: Publizitateak eta gardentasunak orokorrak izan beharko dute, kargu politiko guztietan edo haien menpekoen kasu guztietan.

## 68. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

### 82. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA-EZKERRA

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

68. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honakoa izan behar du testuak:

“68. artikulua. Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua.

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua, komunikazioaren arloan eskumena duen departamentuari baitago atxikia, gardentasunaren eta informazioaren eskuragarritasunaren arloko kontsulta- eta aholku-organoa, eta arlo horretako auziak ebatziko dituen organoa; ez dago jarraibide hierarkikoen menpe, eta autonomia erabatekoa du bere eginkizunak betetzeari dagokionez.

2. Kontseiluak bost kide izanen ditu, Nafarroako Gobernuak sei urterako izendatuak.

a) Horietatik hiru, Nafarroako Parlamentuak proposatuta. Parlamentu-talde bakoitzak hautagai bat aurkeztuko du, eta botorik gehien lortzen dituzten hiru hautagaiak hautatuko dira.

b) Bat, kazetarien elkarte profesionalak proposatuta.

c) Bat, Nafarroako abokatuen elkargoek proposatuta.

Kontseiluko kideek, beraien artetik, lehendakari bat eta idazkari bat hautatuko dituzte.

3. Kontseiluko kideek lanbide-jardueretan, zerbitzu publikoetan nahiz jarduera akademikoetan izen ona duten pertsonak izan beharko dute, hautatutako kargu politikoetan nahiz izendapen askekoetan edo alderdi politikoetako zuzendaritza-karguetan aritzen ez direnak edo azken bost urteetan aritu ez direnak. Zuzenbideko edo Zientzia Politikoetako lizentziatu titulua eduki beharko dute.

4. Kontseilukideek honako egoera hauetan utziko dute kargua:

a) Ezarritako epea amaitzeagatik.

b) Karguari uko egiteagatik edo hiltzeagatik.

c) Izaera politikoko kargu baterako izendatuak edo hautatuak izateagatik.

d) Eginkizun publikoetan aritzeko inhabilitazioa, epai irmo bidez emandakoa.

Kideetako baten kargu-uztea gertatuz gero, adierazitako arrazoietako edozein dela kausa, agintaldiaren amaiera kenduta, bidezko izanen da beste kide bat izendatzea, kargua utzi duen kidea proposatu zuen organoak proposatuta. Kide berri horren agintaldia kontseilua guztiz berriro artekoa izanen da.

4. Nafarroako Gobernuak Kontseilua hornituko du bere eginkizunak betetzeko behar dituen baliabide pertsonalez eta materialez.

Zioak: Bereziki, foru legearen betetzea garantizatzen duen sistema bat eskaintzea, Europako Kontseiluak onetsitako Dokumentu Publikoak Eskuratzeari buruzko Hitzarmenak 8. artikuluan hala exijitzen duenez, erreklamazio-prozedura “azkar eta merke” bat arautzen da; horretarako, “legeak ezarritako erakunde independente eta inpartzial” bat sortzen du, eta hari, horretaz gainera, foru legearen aplikazioa kontrolatzeko beste eginkizun batzuk ematen dizkio. Gobernuaren foru lege proiektuak proposatzen duena, hots, herritarrek administrazioarekiko auzietako jurisdikziora jo dezatela, ez da nahikoa, kontuan hartu behar baita bide hori ez dela izaten ez azkarra, ez merkea.

## 69. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

### 83. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA-EZKERRA

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

69. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honakoa izan behar du testuak:

“69. artikulua. Eginkizunak.

1. Hauek dira, besteak beste, Gardentasunaren Kontseiluaren eginkizunak:

a) Foru lege honetan ezarritakoaren betearazpenean eta garapenean eragina duten arau, neurri edo jarraibideei buruz informatzea eta, kasu bada, haiek proposatzea.

b) Foru lege honetan gardentasuna dela-eta arautu diren errekurtsioez arduratzea eta haiek ebatzea.

c) Foru lege honetako xedapenak betetzen direla zaintzea eta, kasua bada, egokitzen jotzen dituen txosten edo gomendioak ematea.

d) Herritarrei orientabideak eta aholkuak ematea informazioa eskuratzeko eskabideei buruz.

e) Administrazio publikoei aholkua ematea foru lege honetako xedapenen betetzeari buruz.

f) Urteko txosten bat egin eta argitaratzea, foru lege honetako xedapenen betetzeari buruzkoa. Txostena Nafarroako Parlamentuari igorriko zaio. Txosten horretan, gutxienez ere, egoitza eta entitate bakoitzean informazioa eskuratzeko aurkeztutako eskabideak jasoko dira, bai eta eskabide horien emaitzak, erantzuteko denborak, haien zenbatekoa eta kontseiluak ebatzitako errekurtsoren emaitza ere. Halaber, foru legea betetzeko antzeman diren zailtasunak eta egokitzen jotzen diren gomendioak jasoko dira.

2. Kontseiluaren ekitaldi eta ebazpen guztiak publikoak izanen dira.

3. Bere eskurantzak betetzeko, kontseiluak laguntza eskatu ahalko die administrazio publikoetako organoei. Halaber, lekukotasun guztiak jaso eta bere gaitasunaren esparruan saretzen diren egoerak aztertze behar diren informazio eta dokumentu guztiak eskuratu ahalko ditu.

Zioak: Bereziki, foru legearen betetzea garantzatzeko sistema bat eskaintzea, Europako Kontseiluak onetsitako Dokumentu Publikoak Eskuratzeari buruzko Hitzarmenak 8. artikuluan hala exijitzen duenez, erreklamazio-prozedura "azkar eta merke" bat arautzen da; horretarako, "legeak ezarritako erakunde independente eta inpartzial" bat sortzen du, eta hari, horretaz gainera, foru legearen aplikazioa kontrolatzeko beste eginkizun batzuk ematen dizkio. Gobernuaren foru lege proiektuak proposatzen duena, hots, herritarrek administrazioarekiko auzietako jurisdikziora jo dezatela, ez da nahikoa, kontuan hartu behar baita bide hori ez dela izaten ez azkarra, ez merkea.

## 84. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

69. artikuluari beste idatz-zati bat, 3. zenbakiduna, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"2. Arartekoak, bere txostenean, herritarren aldeko erabakia hartzen duenean, Administrazio Publikoak ondorio horiek bere egin eta eraginkor bihurtu beharko ditu, eskatzailearen alde"

Zioak: Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren aldeko xedapen egoki batek legeen aplikazioan dauzkan akatsak zuzentzeko jarrera erakutsi behar du ezinbestez.

## 70. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

## 85. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

70. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honakoa izan behar du testuak:

"70. artikulua. Gardentasunari buruzko errekurtsoa.

1. Informazioa eskuratzeko eskabideak, foru lege honetan araututakoak, direla-eta organo eskudunek hartzen dituzten ebazpenak Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren aurrean aurkatu ahalko dira.

2. Errekurtso hori aurkatutako ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean aurkeztu ahalko da. Kontseiluak errekurtsoa igorriko dio eskatutako informazioa daukan organoari, eta azken horrek, bere alegazioekin batera, gaurkotutako guztia dakarren espedientea igorriko dio, gehienez ere 10 eguneko epean. Kasua bada, hirugarren interesdunei ere helaraziko zaie, alegazioak aurkeztu nahi badituzte ere.

3. Errekurtsoa hilabeteko epean ebatziko da. Ebazpenek amaiera emanen diote administrazio bideari eta berehala betearazi beharrekoak eta lotesleak izanen dira. Entitateari dagokio haiek berehala betearaztea.

4. Artikulu honetan aurreikusitako errekurtsoa aukerakoa eta ordezkoa izanen da. Ez du eragoztiko beste organo batzuei erreklamazio edo errekurtsoko gehiago aurkeztea.

5. Gardentasunaren arloko errekurtsoa aurkeztuz gero, ezin izanen da arrazoi berean oinarritutako administrazio errekurtsoko gehiagorik aurkeztu.

6. Artikulu honetan aurreikusten ez den orotan, administrazio prozedura arautzen duten legeek errekurtsoei buruz xedatutakoa aplikatuko da. Erregelamendu bidez ezarriko da errekurtsoko horiek ebazteko prozedura.

7. Kapitulu honetan xedatutakoa ez da eragozpena izanen lege indardunetan ezarritakorako, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren esku-

rantzei edo administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurtsioak aurkezteari dagokienez.

Zioak: Bereziki, foru legearen betetzea garrantzatzeko sistema bat eskaintzea, Europako Kontseiluak onetsitako Dokumentu Publikoak Eskuratzeari buruzko Hitzarmenak 8. artikuluan hala exijitzen duenez, erreklamazio-prozedura “azkar eta merke” bat arautzen da; horretarako, “legeak ezarritako erakunde independente eta inpartzial” bat sortzen du, eta hari, horretaz gainera, foru legearen aplikazioa kontrolatzeko beste eginkizun batzuk ematen dizkio. Gobernuaren foru lege proiektuak proposatzen duena, hots, herritarrek administrazioarekiko auzietako jurisdikziora jo dezatela, ez da nahikoa, kontuan hartu behar baita bide hori ez dela izaten ez azkarra, ez merkea.

**XEDAPEN GEHIGARRIEI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**86. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA-EZKERRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hirugarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Beste zuzenketa batzuetan proposatzen den bezala, foru lege honexek arautu behar du arlo hau, baita toki administrazioari dagokionez ere, urtebete itxaron behar izan gabe.

**87. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat, laugarrena bis, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Laugarren bis xedapen gehigarria. Administrazioen arteko lankidetzarako konpromisoa.

Gobernu Irekia, herritarrek parte hartzerako eta informaziorako duten eskubidea, bermatzeko, administrazio publiko guztiek eta haien menpeko entitateek konpromisoa hartzen dute haien arteko lankidetzara leialerako, informazioa eskualdatu, trukatuta eta erabilera propiorako erabiltzeari dagokienez, bai eta foru lege honetan ezarritakoari erantzuteko ere.”

Zioak: Helburua herritarrak asetzea denez, gaur oraindik halako erresistentzia bat dago administrazioen edo haien menpeko entitateen arteko lankidetzarako eta trukerako.

**88. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA-EZKERRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Seigarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Estatuaren hizkuntza ofiziala gaztelania dela gogoraraztea bezain alferrekoa da. Ez dio ezer ere eransten Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean araututakoari. Arlo jakin bateko foru lege bakoitzean ez gogorazi arren, foru lege hori egon badago eta aplikatu beharra dago, aplikatzekoa izaten jarraitzen baitu.

**89. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Seigarren xedapen gehigarriko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“3. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak behar ditu neurri egokiak hartuko dituzte ahalbidetze aldera herritarren informaziorako eta parte-hartzerako eskubidea, lege honetan ezarritzen den moduan, Nafarroako bi hizkuntza ofiziale-tan bermatu ahal izan dadila.”

Zioak: Ez da onargarria hizkuntza eskubideak tratatzea bazterreko gauza bat balira bezala, are gutxiago hau bezalako lege batean.

Ez da onargarria, ezta ere, Euskarari buruzko Foru Legeak hogeita hamar urte dituenean, oraindik ere “pixkanaka” edo “ahal den neurrian” bezalako terminoak erabiltzea lege honetan jasotako eskubideak bermatzeari buruz ari denean.

**90. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zortzigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

“Foru lege honek indarra hartu ondoren, sozietate publikoek, fundazio publikoek, zuzenbide publikoko entitateek eta zerbitzu publikoak ematen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek, publikoek zein pribatuek, aldaketak sustatuko dituzte, beren antolaketa, egitura eta, hala badagokio, barne araudia aldatzeko, beren zerbitzu jardura foru lege honen printzipio gidarietara egokitzeko asmoz.”

Zioak: Lege honetan ezarritakoa ezin izanen da egon sozietateek edo fundazio publikoek beren barne erregulaziorako dauzkaten funtzionamenduxedapenetan araututakoaren menpe, ez eta haiek baino maila apalagoan ere.

## 91. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Idatz-zati berria. Xedapen gehigarri berri bat, zortzigarrena, gehitu da. Hona testua:

“Xedapen gehigarria... Gobernu Onaren Kodea ezartzen duen martxoaren 17ko 2/2011 Foru Legearen aldaketa.

Aldatzen da martxoaren 17ko 2/2011 Foru Legeko 4. artikulua. Artikulu horren bidez, izan ere, Gobernu Onaren Kodea ezartzen da. Honakoa izanen da haren testua.

“1. Urtero, Nafarroako Gobernuak aztertuko du kontseilari eskudunak eginiko txostena, zeinetan agertuko baitira foru lege honetan ezarritako etika-eta jardun-printzipioen balizko urraketak. Horren xedea izanen da Gobernuaren eta gobernuko goi karguen bateraezintasunei buruzko beste foru legeetan ezarritakoaren arabera hasi dezaketen prozedurak eta jarduerak aztertzea. Txosten hori Gobernuaren atarian argitaratuko da eta Nafarroako Parlamentuari igorriko zaio.

2. Toki entitateen Osoko Bilkurak edo organo balioak bere lehendakariak eginiko txostena ezagutuko du, aurreko idatz-zatian aurreikusitako norainoko berarekin.

Zioak: Gardentasuna sartzea martxoaren 17ko 2/2011 Foru Legearen aplikazioan. Lege horren bidez, izan ere, Gobernu Onaren Kodea ezartzen da, zeinaren aplikazioa, orain arte, opakoa izan baita.

## 92. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat, zortzigarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarria... Kontratu publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen aldaketa.

Bat. Aldatu egin da Kontratuari buruzko azaroaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 28 artikulua. Honako testua izanen du:

“1. Nafarroako Gobernuak Interneten, Kontratazio Publikorako Batzarraren pean, Nafarroako Kontratazioaren Ataria edukiko du. Atari hori foru lege honen menpeko entitateen lizitazioen publizitaterako bide ofiziala izanen da. Hori dela eta, nahitaezko iragarkiak argitaratu izana eta argitaratze data egiaztatu ahal izateko behar diren neurriak antolatuko dira.

2. Atariak honako gaiei buruzko informazioa eman beharko du:

a) Foru lege honen menpeko entitate eta kontratazio organoei buruzko datu orokorrak, esate baterako, harremanetarako helbidea, telefono eta fax zenbakiak, posta helbidea eta posta elektronikoen kontua.

b) Egiten ari diren lizitazioen guztien berri eman du, eta eskura egonen dira kontratua gauzatzeko baldintza guztiak eta gainerako agiri osagarriak, halakorik denean, programatutako kontratuak, esleitutako kontratuak, deuseztatutako lizitazioak eta kontratazioa behar bezala kudeatzeko beharrezko edo komenigarriak diren beste informazio guztiak.

c) Adjudikatutako kontratuari buruzko informazioak, adjudikazio ekintzaz eta kontratuaren testu osoaz gainera, honakoak jasoko ditu: haren aldaketak, exekuzio- zein likidazio-ekintzak eta, kasu bada, ebazteko ekintzak.

f) Espediente bakoitzaren datuekin batera, datu globalak ere eskaini beharko dira, ordenatuta gutxienez ere entitate adjudikazio-hartzaileka, urtaldika, kontratuen motaka eta adjudikatzeko prozedurak.

e) Maiz egiten diren galderei buruzko informazioa eta kontratuen edukia argitzeko azalpenak.

Bi. Foru lege bereko 60. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen da. Hau testu berria:

“2. Inoiz ere ezin izanen da mahaikide gisa izendatu langile publikoak ez diren pertsonak; izan ere, ezin izanen dute parte hartu ez hautapen libreko edo izendapen politikoko langileek, ez aldi baterako funtzionarioek edo behin-behineko langileek, ez aldi baterako kontratua duten langileek ere.”

Zioak: Gardentasuna sartu beharra dago Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen aplikazioan, halako moduz non operadore juridikoek ez duten bi testu desberdinetara joan beharrik izanen. Gardentasunari buruzko erregulazio osoa foru lege honetan sartzeko aukera desgokia da; adituei eta ikertzaileei baizik ez die mesederik eginen, baina operadore juridikoek inte-



res handiagoa izaten dute araudi sektoriala aplikatzeko gardentasunari buruzko xedapen guztiak ezagutzeko baino.

Zehazki, Mahaiari buruzko erregulazioak kontratu-esparruari egokitzen dio Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legeko 60. artikulua ezarritakoa, organoak daukan erabateko inpartzialtasunaren irudia zaintzeko.

### 93. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA-EZKERRA

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat, zortzigarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarria... Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen aldaketa.

Bat. Aldatu egin da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 15 artikulua. Honela geldituko da testua:

“Halakoak ematen dituzten organo administratiobek emandako dirulaguntza guztiei buruzko informazioa emanen dute, bai bertatik bertara, bai Internet bidez, Nafarroako administrazio publikoen gardentasunari buruzko legeetan ezarritakoaren arabera.”

Bi. Foru lege bereko 20. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzen da. Hau testu berria:

“3. Deialdian, eman beharreko diru-kopuruaren zenbateko eskasa dela eta, kontrakoa ezartzen ez den bitartean, eskariak ebaluatzeaz arduratuko den organo kolegiatu bat eratuko da. Haren irizpea loteslea izanen da. Inoiz ere ezin izanen da kide gisa izendatu gaitasun tekniko egokia izan eta langile publikoak ez diren pertsonak; izan ere, ezin izanen dute parte hartu ez hautapen libreko edo izendapen politikoko langileek, ez aldi baterako funtzionarioek edo behin-behineko langileek, ez aldi baterako kontratua duten langileek ere.” Instrukzio organoak, ebaluazioa ikusirik, eabazpen proposamena egingen du.”

Zioak: Gardentasuna sartzeari Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen aplikazioan, beste zuzenketa batzuetan proposatutakoarekin bat. Zehazki, organo erregulatzaileari buruzko erregulazioak esparru horri egokitzen dio Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legeko 60. artikulua ezarritakoa, organoak daukan erabateko inpartzialtasunaren irudia zaintzeko.

### 94. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA-EZKERRA

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat, zortzigarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarria Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen aldaketa.

Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen seigarren xedapen gehigarria aldatu, 4. idatz-zatia hain zuzen, eta honela geldituko da:

“4. Planeamenduko erregistroa publikoa da. Publikotasuna gauzatuko da planeamendu zehatz bakoitzaren edukari buruzko ziurtagiriaren bidez, horretarako gaitutako funtzionarioak luzatuko baitu, edo erregistroko agiriei buruzko informazio-ohar edo kopia soilaren bidez, zeinak ez baitu izanen administrazio kostua baino prezio garestiagoa. Nolanahi ere, Internet bidezko doako sarbidea egonen da eduki osora.”

Zioak: Gardentasuna sartu beharra dago Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 35/2002 Foru Legearen aplikazioan, halako moduz non operadore juridikoek ez duten bi testu desberdinetara joan beharrik izanen. Gardentasunari buruzko erregulazio osoa foru lege honetan sartzeko aukera desagokia da; adituei eta ikertzaileei baizik ez die mesederik egingen, baina operadore juridikoek interes handiagoa izaten dute araudi sektoriala aplikatzeko gardentasunari buruzko xedapen guztiak ezagutzeko baino.

### 95. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA-EZKERRA

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat, zortzigarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarria... Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen aldaketa.

Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeko 111. artikulua aldatzen da, zeinari 4. idatz-zati berri bat gehituko baitzaio. Hartara, honela idatzita geldituko da:

“4. Administrazio Kontseiluko kideen eta Batzar Nagusiko kideen eta zuzendaritza-kideen ordainsariak publikoak izanen dira. Ezin izanen dira inola ere izan Nafarroako Gobernuak lehendakariak jasotzen dituenak baino handiagoak.”

Zioak: Gardentasuna sartu beharra dago Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen aplikazioan, sozietate publikoei dagokienean, halako moduz non operadore juridikoek ez duten bi testu desberdinetara joan beharrik izanen. Gardentasunari buruzko erregulazio osoa foru lege honetan sartzeko aukera desegokia da; adituei eta ikertzaileei baizik ez die mesederik egingen, baina operadore juridikoek interes handiagoa izaten dute araudi sektoriala aplikatzeko gardentasunari buruzko xedapen guztiak ezagutzeko baino.

## 96. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat, zortzigarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarria... Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 226. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen da, zeina honela idatzita geldituko baita:

“2. Nolanahi ere, mahaia, lehendakaria salbuespen bakarra dela, behar den gaikuntza teknikoa daukaten langile publikoek osatuko dute, eta inoiz ere ezin izanen dute hartan parte hartu ez hautapen libreko edo izendapen politikoko langileek, ez behin-behineko funtzionario edo langileek, ez aldi baterako kontratua duten langileek ere”. Salbuespen gisa, 5.000 biztanle baino gutxiagoko toki entitateetan udalbatzako kideek parte hartu ahalko dute, betiere dauden talde politiko guztiak ordezkatuta badaude. Nolanahi ere, mahaian entitateko idazkariak edo titulazio hori eskatzen deneko lanpostuan diharduen zuzenbideko lizentziatu batek hartuko dute parte, eta idazkari lanak egingen dituzte. Mahaikideak ez badira teknikari adituak kontratuak xede duen gaian, mahaiak behar diren txosten teknikoak eskatu beharko ditu, esleipen proposamena haietan oinarritzeko.

Zioak: Gardentasuna sartzea Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen aplikazioan, kontratu publikoen esleipenari dagokionean, eta esparru horri egokitzea Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legeko 60. artikuluan ezarritakoa, organoaren erabateko inpartzialtasunaren irudia zaintzeko.

## 97. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat, zortzigarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarria Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzea.

Aldatu egin da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsirik Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren Testu Bateginaren 8. artikulua. Bi idatz-zati gehituko zaizkie; hona haien testuak:

“3. Hautapen organoak kolegiatuak izanen dira, eta haien osaera kideen inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioen arabera egokitu beharko da, eta emakumearen eta gizonaren parekotasuna ere bilatuko da. Hautapen edo izendapen politikoko langileek, behin-behineko funtzionario edo langileek eta aldi baterako kontratua duten langileek ezin izanen dute hautapen-organoen partaide izan.

4. Hautapen proben izaerak horretarako bidea ematen duen bitartean, izangaien anonimotasunari eutsiko zaio, pliken sistemaren edo antzeko beste sistema batzuen bitartez”.

Zioak: Gardentasuna sartzea Nafarroan funtzionario publikoak hautatzerakoan, eta esparru horri egokitzea Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 60. artikulua xedatutakoa, organoaren erabateko inpartzialtasunaren irudia zaintzeko eta garantia handiagoak izateko prozeduran; izan ere, proben kalifikazioari begira ezarriko da izangaiak aukera dagoen guztietan anonimoak izatea.

## 98. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat, zortzigarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarria Herritarren parte-hartzeari buruzko foru legea.

Urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak herritarren parte-hartzeari buruzko foru lege proiektu bat igorriko dio Parlamentuari.

Zioak: Beste zuzenketa batzuekin bat etorritz, jotzen da proiektu honek gardentasunaren arloan zentratu beharra duela, eta ez duela testu berean arlo bat baino gehiago nahastu behar. Herritarren parte-hartzearen arloak berariazko araupetzea eskatzen du, eta proiektuan jasotakoa baino anbi-zio handiagoa behar du (izan ere, ez da iristen ezta planteatzera ere toki araubideko legedian jasotako teknikak; esate baterako, auzokideen ekimena eta herri kontsultak egiteko aukera).

### XEDAPEN IRAGANKORREI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

#### **99. ZUZENKETA**

##### **BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen iragankor berri bat gehitzeko zuzenketa:

“Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabete-ko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari lege proiektu bat bidaliko dio, non herri kontsultaren figura arautuko baita Nafarroako Foru Komunitate osorako.”

Zioak: Demokrazia parte-hartzailea lortzeko bidean aurrera egin nahi badugu, ezinbestekoa da gure buruari tresna berriak ematea, lau urtez behin boto emateko eskubide hutsaz harantzago. Foru erkidegoaren mailako kontsultaren figura existitzen bada ere, gure legediak foru erkidegoaren mailako kontsultei buruzko foru lege bat falta du.

#### **100. ZUZENKETA**

##### **NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren xedapen iragankorra gehitzeko zuzenketa. Hona testua izanen du hitzez hitz:

“Bigarren xedapen iragankorra. Informazio publikoa eskuratzeko eskabideari buruzko arauak

Informazio publikorako sarbidea modu iragankorrean arautiko da Nafarroako Gobernuak lege honek indarra hartzen duenetik hiru hilabete-ko epean eginen duen erregelamendu baten bitartez.”

Zioak: Legeak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarentzat gobernu irekirako eredu bat sortzeko duen asmoari erreparatzen badiogu, informazio publikoa eskatu eta hura eskuratzeko prozedurak dakarren bakarra da Administrazioak

ahalmena izatea informazio publikorako sarbideari buruz; salbide hori, berriz, ezin da ezarri ezpada datu pertsonalak babestearen eta, ekitatea eta segurtasun juridikoa segurtatze aldera, zenbait espediente administratibok eduki beharreko konfidentzialtasunaren ikuspuntutik.

Horrenbestez, legeak jaso behar duena da Administrazio Publikoak sarbide orokorreko doako euskarri eta bideak ezartzeko daukan betebeharrak. Euskarri eta bide horietan informazio publiko guztia libreki eskuratu ahal da, baldin eta informazio hori ez badago lotuta lege honek, espediente motaren arabera, ezarri beharreko murriztapenei.

Informazioa eskatzeko prozedura elementu iragankor bat da, zeina erabiliko baita Administrazioak informazio-bide hori sortzeko betebeharrak bete arte.

### IDAZPURUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

#### **101. ZUZENKETA**

##### **IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

VIII. tituluaren idazpurua aldatzeko zuzenketa

Proiektuaren VIII. tituluak honako izenburua izanen du: “Gardentasuna kontrolatzeko eta garrantzitzeko organoak”

Zioak: Beste zuzenketa batzuetan proposatzen dugun edukiarekin bat.

### IZENBURUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

#### **102. ZUZENKETA**

##### **IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lege proiektuaren izenburua aldatzeko zuzenketa. Honakoa izanen da: “Nafarroako Administrazio publikoen gardentasunari eta informazio publikoari buruzko Foru Legea.”

Zioak: Beste zuzenketa batzuekin koherente jokatu, proiektua gardentasunean eta informazioa eskuratzeko zentratu beharra dago, eta Nafarroako Administrazio publiko guztietan eduki behar du eragina.

**ZIOEN AZALPENARI  
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

**103. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA-EZKERRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen duj:

“ZIOEN AZALPENEA

Herritar guztiek bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean benetan parte har dezaten, eta parte-hartze hori Espainiako Konstituzioan ageri den printzipioetako bat da, funtsezko baldintza da ziurtatzea informazioa eskuragarria izanen dela eta botere publikoen jarduketara oro gardena izanen dela. Horregatik ezartzen du Estatuko oinarriko legediak, bereziki Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, administrazio publikoen eta herritarren arteko harremanek gardentasunaren eta parte-hartzearen printzipioak izan behar dituztela gidari, eta horregatik arautzen ditu hain luze eta zabal informazioa eskuratzeko eskubidea eta erregistroetan eta artxi-boetan bildutakoak eskuratzeko eskubidea. Baina arau askok lantzen dute arlo hori bera. Esaterako, besteak beste, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Ingurumen arloan informazioa eskuratu, herritarrek parte hartu eta justizia lortzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legea, Herritarrek zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea, eta Sektore Publikoaren Informazioa Berriz Erabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legea. Nafarroan hauek dira garrantzitsuenak: Nafarroako Foru Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legea, Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legea, eta Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriak buruzko abenduaren 9ko 15/2009 Foru Legea. Era berean, nabarmentzekoa da Gobernu Onaren Kodea ezartzen duen martxoaren 17ko 2/2011 Foru Legea; hainbat printzipio etiko eta jokaerako jasotzen ditu, haren jardueraren publizitatea eta gardentasuna bermatzen dituztenak.

Edonola ere, administrazio publikoak beren jardunean benetan gardenak izan daitezzen lortzeko

bidean, badira zenbait zailtasun eta erresistentzia, halako moduz non komeni baita arau espezifikoak ezartzea, gardentasunaren printzipioa bermatzeko era horretan administrazio jardueraren esparru desberdinetan, mekanismo eraginkorrak aurreikusiko dituzten arauak, herritarrek informazioa eskuratzeko eta bidea emanen dutenak, barenko nahiz kanpoko bitartekoak ezartzeko, kontrolatze aldera ea printzipio hori betetzen den. Horregatik, munduko zenbait herritan, tartean Espainian berriki, eta bereziki autonomia erkidego espainiar zenbaitetan, azken urteotan, legedi espezifiko bat joan da sortzen, kudeaketa publikoaren gardentasuna ziurtatzera bideratua. Ildo berean doaz nazioarteko arau zenbait ere, hala nola Dokumentu Publikoak Eskuratzeari buruzko Hitzarmena, Europako Kontseiluak Tromsø hirian 2009ko ekainaren 18an gauzatua, kide diren estatuak berrespen bidean dutena gaur egun.

Nafarroak, bere foru araubidearengatik, eskumen eksklusiboa du Nafarroaren zuzenbide substantiboaren espezialitate edo antolaketa berekien ondoriozko prozedura administratiboko arauen gainean. Orobat, eskumen eksklusiboa du Foru Diputazioaren araubide juridikoaren, bere Administrazioaren eta horren menpeko erakunde publikoen gainean. Administrazio Publikoaren aurrean administratuak berdintasunez tratatuko direla bermatzen da, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 49.1 artikulua c) eta e) atalekin bat. Nafarroako toki administrazioaren esparruan dauzkan eskumenen barrenean emandako foru lege honek helburu du gardentasunaren printzipioa benetan bete dadila, beharrezkoa baita herritarrek parte har dezaten, botere publikoen jarduna zilegia izan dadin, eta botere horien kudeaketa, berriz, eraginkorra.”

Zioak: Beste zuzenketa batzuekin koherente jokatzeko, proiektua gardentasunean zentratu beharra dago, eta Nafarroako administrazio publiko guztietan eduki behar du eragina.

**104. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko I. ataleko laugarren lerroka da aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du:

“Foru lege honek gaur egun Gobernu Irekia deitzen denaren oinarriak jarri nahi ditu, eta, horrenbestez, hura definitzen duten ezaugarriak bermatzeko bideak ezarri nahi ditu:

Gardentasuna, Administrazioaren eskura dauden datuak, informazioa eta ezagutza eskuratzearen bidetik, bai parte-hartze demokratikoa, bai ekintzailtza errazteko; horren guztiaren oinarria da informazio publikoaren jabetza herritarrena dela.

Administrazioaren eta gobernuaren esku badaude zenbait datu, beren antolamendutik heldu den informazioa eta sistematizazioa, eta datu horien balio erantsia lortzeko tratatuak izatek lorturiko ezagutza; eta horiek guztiak herritarren jabetzapekoak dira eta, horrenbestez, herritar horiek eskubidea dute haiek libreki eskuratu eta erabiltzeko. Eta Administrazio publikoa da haien gordailuzaina bakarrik, bere erabilerarako eta aprobetxamendurako, eta, horrenbestez, datu horien eta beren tratamenduaren ondoriozko produktuen eskuratzeak eta erabilerak libreki izan behar dute pertsona fisiko zein juridikoentzat, datu pertsonalen babesaz eta isilpekotasun administratiboaren zaintzaz beste mugarik gabe, halakoak behar adina justifikatuta daudenean.

Horrenbestez, hori guztia dela eta Administrazioak beharrezko dituen eskuratze-bide eta betebeharrak ezarriko ditu foru lege honek, bai eta eskubide horretarako salbuespenak ere, herritarrek informazio publikoaren jabetza izatearen printzipioa oinarri harturik.

Parte-hartze demokratikoa, halakotzat ulerturik Administrazio publikoak eta Gobernuak daukaten betebeharra, hartzten diren erabakiak direla-eta ukituek daukaten iritzia entzutekoa, bai eta entzute hori artikulatzeko bideak ezartzeko, erabaki horiek oinarritzen dituen informazioa zabaltzeko eta erabakietan parte hartzeko tresnak finkatzeko ere.

Malgutasun administratiboa Halakotzat honakoak ulertu behar dira: prozesu administratiboen soilteza, eskuragarritasuna eta ulergarritasuna, haien eraginkortasuna eta efizientzia segurtatze aldera; herritarrek prozesu horiek ezagutzea eta interpretatzea, haien egiazko protagonistak baitira; horretarako, neurriak eta euskarriak ezartzea, herritarrek haiek ezagut ditzaten eta prozeduraren edozein egoeratan esku hartu ahal dezaten.

Sarean lan egitea. Lankidetzan oinarritutako lan egiteko era berriak zabaltzea eta zehaztuko dira, eta haien bitartez lan administratiboaren horizontalizatzea eta herritarrek hartan parte hartzea bermatuko da, produktuak eta zerbitzuak definituz herritarren interesen arabera eta lan administratiboaren berrerabilera bideratuz ekintzailtzarako.

Zioak: Helburua da gobernu irekiaren printzipioak ezartzea funtsezko bi printzipiotan oinarrituta:

Informazio publikoaren jabetza herritarrena da dagoen garapen-egoeran dagoela ere: datuak, informazioak edo ezagutza. Eta informazio hori eskuratze muga bakarra izan daiteke datu pertsonalak babestea eta zenbait espediente administratiboren konfidentzialtasuna. Bada, bi salbuespen horiek aurrez justifikatu behar dituzte Administrazio Publikoak, informazioaren tipologia-aren arabera irizpide orokor batzuen bitartez, eta ez espediente jakin batzuen eskuragarritasuna mugatuz. Hartara deuseztatutako da Administrazioak zuzentzerikotasunez jokatzeko informazio publikorako sarbidea mugatzeari dagokionez.

Gobernu Irekiaren eredu bateko parte-hartze politikoak hiru maila dauzka:

Entzute aktiboa, herritarren iritzia egoera ezagutzeko. Horretarako, bi bide gaituko dira, modu proaktiboan. Eztabaida publikoa gertatzen den bideetan presente egon behar du Administrazioak.

Lankidetz aktiboa, haietan interesa izan dezaketen herritarrek produktu eta zerbitzu administratiboak kudeatzeko prozesuetan biltzeko, administrazioaren eta herritarren arteko lankidetzarako tresnak sortuz.

Erabakiak hartzen parte hartzea, herritarrek parte hartzeko bideak eta formulak ezarri, hala erabakitzen den espedienteetan.

Eta hori guztia herritarren interesa lehenetsita, guztiz deuseztatuz Administrazioak aukera izatea zuzentzerikotasunez jokatzeko, parte-hartze politikorako agenteak erabakitze orduan.

## 105. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko IV. ataleko laugarren lerroka da aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du:

“Hirugarren tituluak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea arautzen du, honako printzipioa abiapuntu hartuta: herritarrek dira haren titularrak, eta hura kudeatzen duena Administrazio Publikoa da. Lehenengo kapituluak eskubide hori gauzatzeko bide eta arau orokorrak ezartzen ditu. Dena dela, eskubide horrek baditu mugak; berariaz aurreikusi dira, eta, nolana ere, babesa xede eta helburu izanik jarri behar dira muga horiek. Eta epe zehatz batean bakarrik aplikatuko dira, edo

justifikatzen dituen arrazoiak dirauen bitartean. Era berean, Administrazio Publikoak zabalkunderako dituen betebeharretan ere aplikatu daitezke legeko muga horiek. Datu pertsonalen nahitazko babesa ere kontuan hartu da: ezartzen da babes horrek lehentasuna duela informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen aurrean, baldin eta gatazkarik bada eta ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea babestu behar bada.

Zioak: Beste testu bat proposatzen da, zeren eta argi utzi behar baita herritarrak direla informazio publikoaren titularrak, eta Administrazioa dela hura kudeatzen duena.

Bestalde, proposatzen da II. kapituluari buruzko aipamena kentzea lerrokadaren bukaeratik, zeren eta uste baitugu kapitulu horri buruzko arau-petze iragankorra egin behar dela, harik eta Administrazio Publikoa gauza den arte informazio publiko osorako sarbidea bermatzeko, salbu eta legeak aurreikusten dituen salbuespenetan, datu pertsonalak babesteari dagokionez, eta prozesu eta prozeduretan, eskatzen denean, konfidentzialtasuna bermatzeari dagokionez –kasu horiek behar bezala justifikatuko dira eta lege honetan jasoko dira–. Zuhurtziarakotasun administratiboan oinarritutako irizpide oro baztertuko da.

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administraziooko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duena.**

### **AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikulua ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administraziooko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezela agintzen da. Foru Lege proiektua 2012ko martxoaren 28ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **1. ZUZENKETA**

#### **IZQUIERDA-EZKERRA**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetatik lehena aldatzeko zuzenketa. Honakoa izan behar du testuak:

«Azken xedapenetan lehenengoa. Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administraziooko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen aldaketa.

Bat. Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administraziooko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeko 5. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen da, zeina honela idatzita geldituko baita:

“1. Kargu publiko gisa goi karguan aritzearekin bateragarri diren jardueretan aritzea galarazi gabe, ez du karguaren lansariaz aparte beste sari ekonomikorik jasoko, honako hauek salbu:

a) Egin behar dituen bidaia, egonaldi eta leku aldatzeen gastuen kalte-ordaina, indarra duen araudiari jarraituz.

b) Zein administrazio publikotatik datorren, haren legeriak onartzen dizkion ordainsari bateragarriak, goi karguak eszedentzia berezian edo zerbitzu berezietan diren funtzionarioak direnean.”

Bi. Foru lege bereko 3. bis artikuluko 2., 3. eta 4. idatz-zatiak aldatzen dira eta honela idatzita geratzen dira:

“2. Kargua utzi eta biharamunetik aurrera, Nafarroako Gobernu kideek eskubidea izanen dute hileroko prestazio ekonomiko bat jasotzeko, kargua utzi aurretik jasotzen zituzten ordainsarien urteko guztizko kopuruaren ehuneko 80aren hamabiren batekoa. Karguan egondako denbora zenbat izan den, denbora horren erdia egiten duen epe batez jasotzen ahalko dute prestazio hori; betiere, hogeita lau hileroko jasotzen ahalko dituzte gehienez.

Prestazioa sorrarazten den bitartean, ez bada bidezkoa interesdunari bere aurreikuspen sozialeko sisteman alta ematea, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiarekin hitzarmen berezi bat sinatzen ahalko du, eta horren ondoriozko kotizazioak itzultzeko eskubidea izanen du.

3. Aurreko idatz-zatian araututako prestazioa bateraezina da honako hauekin:

a) Beste edozein lanpostutan aritzeagatik ordainsariekin, sektore publikoak izan, edo pribatukoak izan.

b) Edozein lanbide edo merkataritza jardueratik etorritako diru-sarrerekin.

c) Nafarroako Parlamentura edo beste edozein organismo edo erakunde publikotara joateagatik dietekin.

d) Enpresa publiko edo pribatuen administrazio kontseiluetara joateagatik dietekin.

e) Aurreikuspen sozialeko edozein araubide publikotako erretiro-sariekin.

Ordainsari, erretiro-sari edo diru-sarrera horiek, urteko guztiak kontatuta, baxuagoak badira aurreko idatz-zatian adierazitako prestazio ekonomikoa baino, eskubidea izanen dute bien arteko aldea jasotzeko, bakarrik.

4. Administrazio publiko batean edo horien menpeko erakunde batean lanpostu bat erreserbatu duten enplegatu publikoek ez dute aurreko idatz-zatietan ezarritako prestazio ekonomikoa inolaz ere jasoko.”

Zioak: “Kargu bat, soldata bat” printzipioa ezarritakoa, eta 2007an jarri ziren pribilegio justifikaezina kentzea, kargua utzi ondoko sariena adibidez, zeinak Gobernu kide izan direnentzat bakarrik izan behar baitu eta ez beste inorentzat.

**2. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bat ataleko artikuluko bakarreko 1. idatz-zatiko f) letra aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

f) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde publikoen fundazio publikoetako zuzendariak eta kudeatzaileak, kontseilariak, kontseilari delegatuak, ahaldunak eta zuzendaritza-mailako langileak, kargu horietan aritzeagatik aldizkako ordainsari finkoak jasotzen badituzte.”

Zioak: “Parekoak” hitza ez da behar bezain zehatza.

**3. ZUZENKETA****NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

2. artikuluko 1. idatz-zatiari beste letra bat gehitzeko zuzenketa.

“x) Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko zuzendari nagusia.”

Zioak: Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak bere foru lege propioa du, 8/2009 Foru Legea. Pertsona bakarreko sozietate mugatu gisa eratu, Nafarroaren ondare enpresarialaren zati bat da.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren berezitasunak, Nafarroako Gobernuaren sozietate publikoak integratzen dituen sozietate nagusia baita, berariazko aipamena behar du araudian.

Foru lege proiektuak aipatzen ditu sozietate publikoak, baina ez du zuzenean aipatzen, ordea, horiek integratuta gelditzen diren erakundea.

**4. ZUZENKETA****NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

3. bis artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“2. Kargua utzi eta biharamunetik aurrera, Nafarroako Gobernuko kideek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko zuzendari nagusiek eta haren menpeko erakunde publikoetako zuzendari kudeatzaileek eskubidea izanen dute hilabetero prestazio ekonomiko bat jasotzeko; hain zuzen

ere, kargua uzten dutenean jasotzen ari ziren urteko guztirako oinarrizko soldataren % 80aren hamabiren bat. Karguan egondako denbora zenbat izan den, horren erdian jasotzen ahalko dute prestazio hori, eta gehienez ere, hogeita lau hilekotan.

Zioak: Goi karguen ordainsariak honela daude osatuta: oinarrizko soldata eta arduragatiko osagarria. Behin kargua utzita eta eginkizunik gabe, ez dirudi logikoa arduragatiko osagarria sartzea kargua utzi ondorengo diru-sarrietan.

**5. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikuluko bakarreko Bi ataleko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Azken paragrafoa kentzea proposatzen dugu; hau: “Ordainsari, erretiro-sari edo diru-sarrera horiek (...) eskubidea izanen dute bien arteko aldea jasotzeko, bakarrik.

**6. ZUZENKETA****NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

3. bis artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“2. Kargua utzi eta biharamunetik aurrera, Nafarroako Gobernuko kideek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko zuzendari nagusiek eta haren menpeko erakunde publikoetako zuzendari kudeatzaileek, bai eta Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko zuzendari nagusiak ere, eskubidea izanen dute hilabetero prestazio ekonomiko bat jasotzeko; hain zuzen ere, kargua uzten dutenean jasotzen ari ziren urteko guztirako ordainsarien % 80aren hamabiren bat. Karguan egondako denbora zenbat izan den, denbora horren erdia egiten duen epe batez jasotzen ahalko dute prestazio hori; betiere, hogeita lau hileroko jasotzen ahalko dituzte gehienez.

Zioak: Zuzenketa hau 1. zuzenketaren onesperekin dago lotuta.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak bere foru lege propioa du, 8/2009 Foru Legea. Pertsona bakarreko sozietate mugatu gisa eratu, Nafarroaren ondare enpresarialaren zati bat da.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren berezitasunak, Nafarroako Gobernuaren sozietate



publikoak integratzen dituen sozietate nagusia baita, berariazko aipamena behar du araudian.

Foru lege proiektuak aipatzen ditu sozietate publikoak, baina ez du zuzenean aipatzen, ordea, horiek integratuta gelditzen diren erakundea.

## 7. ZUZENKETA

### NAFARROAKO PARLAMENTUKO TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

3. bis artikuluko 3. idatz-zatiko a) letra aldatzeko zuzenketa.

“a) Beste edozein lanpostutan aritzeagatiko ordainsariekin, sektore publikokoak izan edo pribatukoak, edota erakunde publikoetako ordezkariak karguetan aritzeagatikoak.

Zioak: Foru lege proiektuak bai jasotzen du kargua utzi ondoko sariak ez direla bateragarriak Parlamentuko dietekin –foru lege proiektuko c) letra–, baina ez, ordea, esate baterako, Parlamentuko ordainsariekin.

Parlamentari kargua ez da lanpostu arrunt bat, baizik eta ordezkariakoa nabarmenki. Lanaldi osoko araubideari atxikitako parlamentariak Legebiltzarrekin dutena ez da lan-harremana, hau da, ez dira Parlamentuko langileak. Horrela ziurtatu zuen Parlamentuko zerbitzu juridikoen azken txostenetako batek, martxoaren 29ko greba orokorra zela-eta egintzoak.

## 8. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bi atalean, 3. idatz-zatiari bi letra berri gehitzea, f) eta g). Hona testua:

“f) Edonolako ordainsariak dituzten karguak izatea; esate baterako, enpresa publikoetako edo administrazio publikoen partaidetza duten enpresetako lehendakari edo kontseilari izatea. Ez da salbuespen izango kargu horiek, funtsean, ordezkariak-postuak izatea.

g) Gizarte Segurantzaren langabezia jasotzeko eskubidea”

Zioak: Iruditzen zaigu, hori baita justua, ordainsariak dituen kargu bat izateak berekin ekarri behar duela bateraezintasuna.

Begi-bistakoa denez, bestalde, modu progresiboan Gizarte Segurantzaren araubide orokorra ezarri behar dela estaldura orokor gisa, araubide

horren aplikazioak izan behar du arau orokorra, eta orain indarrean dagoen sistema legala, berriz, salbuespen hutsa, are gehiago kontuan hartuta Gizarte Segurantzaren estaldurak gertakizun orokorretarako kotizazioa ere baduela, eta ez, aldiz, kargua utzi ondoko sarietarako.

## 9. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hiru atala aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“6. Artikuluko bakarreko Bi atalean ezarritako prestazioak jasotzeko eskubidea duten guztiek, artikuluko honen 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, jasotzen dituzten prestazio ekonomikoak Nafarroako Gobernuak Interneten duen atarian argitaratuko dira, erregelamenduz ezartzen den bezala.

Zioak: Hilero prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidearen interpretazio generikoak ez du bate-re salbuespenik izan behar.

## 10. ZUZENKETA

### NAFARROAKO PARLAMENTUKO TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

3. bis artikuluko 6. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“6. Nafarroako Gobernuko kide ohiek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari zuzendari nagusi ohiek eta haren menpeko erakunde publikoetako zuzendari kudeatzaile ohiek artikuluko honen 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera jasotzen dituzten prestazio ekonomikoak Nafarroako Gobernuak Interneten duen atarian argitaratuko dira, erregelamenduz ezartzen den bezala.”

Zioak: Karguaren izena aldatzea, foru lege proiektuaren beste idatz-zati batzuetan ageri den erakunde publikoetako arduradunen izendapen bera erabiltzearen.

Erakunde publikoetako zuzendari kudeatzaile izendapena agertzen da Bat atalean; hain zuzen ere, 2. artikuluko 1. idatz-zatiko d) letran.

**11. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

3. bis artikuluko 6. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“6. Nafarroako Gobernuako kide ohiek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio zuzendari nagusi ohiek eta haren menpeko erakunde publikoetako zuzendari kudeatzaile ohiek edota Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko zuzendari nagusiak artikuluko honen 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera jasotzen dituzten prestazio ekonomikoak, Nafarroako Gobernuak Interneten duen atarian argitaratuko dira, erregelamenduz ezartzen den bezala.”

Zioak: Zuzenketa hau 1. zuzenketaren onesperekin dago lotuta.

**12. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 19/1996 Foru Legearen 5. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letra kentzeko zuzenketa; honela dio: “Zein Administrazio Publikotatik datorren haren legeriak onartzen dizkion ordainsari bateragarriak, goi karguak eszulentzia berezian edo zerbitzu berezietan diren funtzionarioak direnean.”

Zioak: Araua modu generikoan dago emana; beste legedi batzuk aipatzen ditu, eta, beraz, ezin da zorrotz interpretatu.

**13. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

6. artikuluko d) letra aldatzeko zuzenketa.

“d) Irakaslan edo ikerlan unibertsitateko zentroetan, betiere lanaldi partzialan egiten baldin bada, denbora jakin baterako, eta kargu publikoan aritzeari kalte egiten ez badio.”

Zioak: Unibertsitatean gauzatu daitezkeen jardueren artean sar daitezke ikerlanak. Aukera bat dira, konparazio baterako, tesiak, proiektuak edo unibertsitate-azterlanak.

**14. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

9. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“3. Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Gobernuko kideek eta Administrazio Publikoko goi kargudunek, bateragarriak diren jardueretan aritzeagatik, jasotzen dituzten ordainsariei eta bestelako dirukopuruei buruzko erregistro datuak, eta agintaldiaren edo kargu publikoko aldiaren hasieran, bitartean eta bukaeran dituzten ondare ondasun eta eskubideei buruzkoak, Nafarroako Gobernuak Interneten duen Atarian argitaratuko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan. Horren ondorioetarako, aurrekoek modu pertsonalean edo sozietate-etako partaidetzaren bidez dituzten ondare-ondasun eta eskubideei buruzko datuak argitaratuko dira haien balioaren berri emateko, baina haien kokapena saihestuko da eta titularren pribatutasuna eta segurtasuna begiratuko dira.”

Zioak: Pertsona batek bere ondasunen jabetza sozietate baten bidez izan dezake, eta aukera hori ez da jasotzen foru lege proiektuan.

**15. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

9. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“3. Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Gobernuko kideek eta Administrazio Publikoko goi kargudunek, bateragarriak diren jardueretan aritzeagatik, jasotzen dituzten ordainsariei eta bestelako dirukopuruei buruzko erregistro datuak, eta agintaldiaren edo kargu publikoko aldiaren hasieran, bitartean eta bukaeran dituzten ondare ondasun eta eskubideei buruzkoak, Nafarroako Gobernuak Interneten duen Atarian argitaratuko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan. Horren ondorioetarako, ondare-ondasun eta eskubideei buruzko datuak argitaratuko dira haien balioaren eta eskuratzeko moduaren berri emateko, baina kokapena saihestuko da eta titularren pribatutasuna eta segurtasuna begiratuko dira.”

Zioak: Eskuratzeko modua: ez da gauza bera ondasun bat eskuratzea, edo bestela egitea haren jabe, hau da, jaraunspen bidez, dohaintzaz, edo ezkontzaren ondasun-eraentza dela-eta.

**16. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

9. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“3. Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Gobernu-ko kideek eta Administrazio Publikoko goi kargudunek, bateragarriak diren jardueretan aritzeagatik, jasotzen dituzten ordainsariei eta bestelako dirukopuruei buruzko erregistro datuak, eta agintaldiaren edo kargu publikoko aldiaren hasieran, bitartean eta bukaeran dituzten ondare ondasun eta eskubideei buruzkoak, Nafarroako Gobernuak Interneten duen Atarian argitaratuko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan. Horren ondorioetarako, aurrekoek modu pertsonalean edo sozietate-etako partaidetzaren bidez dituzten ondare-ondasun eta eskubideei buruzko datuak argitaratuko dira, haien balioaren eta eskuratu izan diren moduaren berri emateko, baina haien koka-pena saihestuko da eta titularren pribatutasuna eta segurtasuna begiratuko dira.”

Zioak: Aurreko biei gehitzen zaien zuzenketa.

**17. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

9. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“3. Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Gobernu-ko kideek eta Administrazio Publikoko goi kargudunek, bateragarriak diren jardueretan aritzeagatik, jasotzen dituzten ordainsariei eta bestelako dirukopuruei buruzko erregistro datuak, eta agintaldiaren edo kargu publikoko aldiaren hasieran, bitartean eta bukaeran dituzten ondare ondasun eta eskubideei buruzkoak, Nafarroako Gobernuak Interneten duen Atarian argitaratuko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan eta goi kargu gisa irauten duen denbora-epean. Horren ondorioetarako, ondare-ondasun eta -eskubideei buruzko datuak argitaratuko dira haien balioaren berri emateko, baina, haien kokapena saihestuko da eta titularren pribatutasuna eta segurtasuna begiratuko dira.”

Zioak: Lege proiektuan zehaztu gabe dago zenbat denboraz egonen den argitaratuta Nafarroako Gobernuaren webgunean.

**18. ZUZENKETA**

**BILDU-NAFARROA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen iragankor bakar bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarri bakarra:

Foru lege honen bidez azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeari egindako aldaketak, hots, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio goi karguen bateraezintasunei buruzkoari egindakoak, gaur egun goi kargu ohi direnei ere aplikatuko zaizkie, egoera horretara iritsi ziren unean indarra zuen araudiaren pean segituko baitute.

Zioak: Atzeraeragina garantizatzea.

**19. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Nafarroako Gobernuak inizatiba hartu eta beharrezko negoziaketak egin beharko ditu kargu publiko guztiak, baita hileroko edo aldizkako pres-tazioak jasotzen dituztenak, Gizarte Segurantzaren araubide orokorrari atxikita egon daitezen, eta ez, ordea, kargua utzi ondoko sarien araubideari. Sei hilabete ematen dira lege-aldaketa horretarako.”

Zioak: Kargu publikoak gainerako langileekin parekatzen joatea progresiboki.

**20. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA-EZKERRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen iragankor bakarra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Egoera pribilegiatuekin jarraitzeak ez du justifikaziorik, eta egoera horiek lehen ere ez zuten justifikaziorik.

**21. ZUZENKETA**

**BILDU-NAFARROA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen iragankor bakarra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da ulertzen gardentasuna ahotan hartzea, foru lege bat aldatzea egokitzeko goi karguen eta goi kargu izandakoen soldatak, eta hori oraingoei ez aplikatzea.

## 22. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor bakarra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Atzeraeragina garantizatzea.

## 23. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen iragankor bat, bigarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Behin aurreko xedapen iragankorren aurreikusitakoa indarrean sartu eta goi karguak Gizarte Segurantzaren araubideari atxikitzen zaizkionean, indarririk gabe geldituko da kargua utzi ondoko sari- en gaineko legedia, eta, bereziki, foru lege honetako artikulua bakarreko Bi ataleko 2. idatz-zatian ezarritakoa.”

Zioak: Gizarte-estaldurak ez bikoiztea.